

GOIEKIREN 2020KO JARDUERAREN MEMORIA

1990eko hasierako Plan Estrategikoan eta 2005ean egindako eskualdeko Agenda 21 estrategikoan lehentasunezko zat jotako ildo estrategikoetan oinarritutako jardueren-plan batekin hasi genuen 2020. urtea. Ondorengo jarduerak nabarmentzen dira:.

Baina martxoan pandemia iritsi zen, eta horrek hasierako aurreikuspen guztiak nahastu ditu, aurreikusitako jardueren asko errealitate berri horretara bideratu behar izan ditugulako.

2020an, Coronavirusaren (Covid-19) ondorioz, osasun, gizarte eta ekonomia mailan izan ditugun arazo guztien ondoren, ikusi dugu funtsezkoa zela enpresetatik hurbil egoten saiatzea, haien egoera zein zen diagnostikatzea eta beharrezkoa zen horretan laguntzen saiatzea. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera BERRABIARAZI programa jarri genuen martxan, lehiakortasun-diagnostiko bat egiteko eskualdeko 350 enpresa, 200 industria eta azken 5 urteetan Goiekiko inkubagailutik sortutako 150 enpresa-ekimen berrian.

Lan hori, 2020an hasi eta 2021eko apirilean amaituko duguna, funtsezkoa izaten ari da gure sare ekonomikoaren errealitatea ezagutzeko eta lehiakortasuna hobetzeko behar diren laguntzak antolatzeko.

2020ko ekitaldian egindako gainerako jardueren artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

Enpresa-ekimen berriak abiarazi nahi dituzten pertsona guztiei laguntza eskaintzea. Enpresen inkubagailuak: Mallutz, Anezka eta NBF.

Eskualdeko turismoa sustatzea eta merkaturatzea Goitur S.L. enpresaren bidez.

Eskualdeko zerbitzuak/proiektuak garatzea (enplegu-plana, gizarte-proiektuak, energiaren eskualdeko mahaia).

Tokiko Agenda 21en koordinazioarekin jarraitzea Goierri, eskualde mailan lehentasunezkoak diren ekintza gutxi batzuk azpimarratuz: eraginkortasun energetikoa eta proiektu estrategikoak: Goiener, energiaren mahaia,...

Berritzea, enpresen lehiakortasunari eusteko eta hobetzeko, eta enpresa-ekimen berriak sortzeko. Enpresa berritzaileak sortzea/Oinarri Teknologikoko Enpresen Zentroa/Goierri Berrikuntza Poloa.

Goiekiko gizarte-arloan lehenetsitako proiektuak abian jartzea: adinekoen bizi-kalitatea hobetzea (GoiOsasunLab proiektua), egoera ahulean dauden kolektiboentzako gizarteratzea eta laneratzea (Ehunkide – Jantzigintza industrialeko tailerra).

Lankidetzaren sarea dinamizatzea: Goierri Valley enpresa-elkartea sortzearen aldeko apustua sendotzea eta zuzendaritza-batzordean parte hartuz elkartea koordinatzea.

Udalei eta, oro har, herritarrei zerbitzuak ematea: kontsumitzailearen bulegoa, mugi txartelak lortzeko kudeaketa, erosketen zentrala, etab.

INDUSTRIA

AURKIBIDEA

1. GOIEKI.....	6
EKINTZAK	6
INNOBASQUE.....	6
HAZINNOVA	6
BERRIKUNTZA PERFILAK	6
4.0 FAZILITADORE MAHAIA PROZESUA.....	7
GOIERRIKO GIDA INDUSTRIALA	7
PARKE EOLIKO TXIKIEAN KONSTRUKZIOA BURUTZEKO IDEIAREN LANKETA.....	8
BESTE ZERBITZU BATZUK.....	8
2. GOIERRI VALLEY	9
SARRERA	9
BISIO ETA BALOREAK	9
HELBURUA	10
ERRONKAK.....	10
EKINTZAK	12
INTERKOOPERAZIO SAREA.....	12
GOSARI AURKEZPENAK	12
DATU BASEA	13
WIN&WIN PROIEKTUA	14
MUNDUAN.....	15
ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZAKO PROIEKTUAK	17
LANKIDETZA SAREA.....	19
MAILAKAKO FOROAK:	19
ENPRESETAKO ORDEZKARIEN ARTEKO HARREMANAK SUSTATU	20
ETE-A INDARTZEA	21
PYMES LEAN.....	21
LEHIATUZ (INDUSTRIA 4.0 ETA INDUSTRIA 5.0)	21
ELEKTROMUGIKORTASUNA	22
SUZESIOA.....	23
ETE-EN EROSKETA FOROA	23
IKUSGARRITASUNA ETA NOTORIETATEA:	24
BAZKIDEAK	24
GOIERRI	27
BEZEROAK	27
BALIO ERANTSIZKO ZERBITZUAK.....	28
COVID-19 BIRUSAK SORTUTAKO ALARMA EGOERARI AURRE EGITEA.....	28

"ILUSIÓN" TXERTATZEA.....	28
LAGUNTZEN KUDEAKETA	30
GUNE INDUSTRIALEN KUDEAKETA.....	31
FORMAZIOA	31
INBERTSOREEN MAHAIA:.....	32
GIDA INDUSTRIALA TEKNOLOGIEKIN:	32
BALIO ERANTSIZKO BESTELAKO ZERBITZUAK:	32
BESTEAK:.....	32

Industria arloaren helburua Goierriko ehun industrialak sendotzea da. Horretarako, urteetan zehar, ekintza ezberdinak egin dira. Azken urtean, estrategia hori lantzeko formula berri bat sortu da, bailarako enpresen arteko aliantza bat, Goierri Valley. Industria arlotik, sendotu nahi duen enpresa orori, formularik eraginkorrena Goierri Valleyn parte hartzea dela esaten zaio. Hori dela eta, Industria Arloak aurrera eraman dituen ekintzak bi ataletan banatuko dira: Goierri Valley barruan eman direnak eta bestelako hainbat zerbitzu.

1. GOIEKI

EKINTZAK

INNOBASQUE

2020 urtean zehar Innobasque aliatu bat izan da eta hainbat izan dira euren eskutik landu diren proiektuak. Euren metodologiak erabiliz honako bi proiektu hauek landu dira.

HAZINNOVA

Helburu nagusia bailarako ETEetan berrikuntza esperientzia pilotuak martxan jartzea da. Programatik sekula berrikuntza proiektuak landu ez dituen enpresetara gerturatu nahi izan da. Behin gerturatu ondoren, azterketa bat egin eta enpresako arlo batean proiektu pilotu bat jarri zaie martxan. Horretarako kanpo aholkularitza zerbitzuak izan dituzte enpresek.

Goiekitik 7 enpresetara iritsi gara.

- Aldanondo
- Aitzgorri
- eurokarpa
- garin
- kalpe
- kimu
- Pingon

BERRIKUNTZA PERFILAK

Innobasque garaturik duen erremienta batekin bailarako enpresen berrikuntza maila ezagutuko da. Horretarako inguruko enpresak bisitatu dira, galdetegi bat burutu zaie eta bakoitzaren berrikuntza maila ezagutu da. Informazio hau berrikuntza proiektu berriak identifikatzeko erabili da.

Helburu bezala bai Goierri Valleyko enpresen berrikuntza maila eta baita gainerako enpresa ezagutzea jarri da, ondoren konparaketa bat egin ahal izateko. Baina pandemia etorri denetik, bisitak bertan behera geratu dira, proiektu hau atzeratu egingo delarik.

4.0 FAZILITADORE MAHAIA PROZESUA

Gipuzkoako garapen agentzien eta Aldundiaren artean mahai bat osaturik dago, besteak beste, Gipuzkoako ETEen berrikuntza nola eragin dezakegun ikusteko. Garapen agentzietako teknikarien lana eta profila ere definitu dira mahai horretan.

Proiektu honen helburu nagusia aurrebaldintzak betetzen dituzten enpresetan 4.0 teknologia bat txertatzeko ekintza plana definitzea da. Horretarako Goiekik Lortek, Goierri Eskola eta Orkli (e-kanban soluzioarekin) izan ditu bidelagun.

2020 urtean honako enpresa hauei lagundu zaie:

2018-2019 programatik etorriak

- Eun group
- CEGi
- Goilaser
- Juan lasa

2019-2020 programa:

- Euskaber
- Logos
- Aitzkoate
- Gune

Gaur egun ETEa 4.0 teknologietara nola gerturatu daitekeen definitu da. Hau dena aurrera eramateko “auditoriak 4.0” proiektua definitu da.

2019an hasitako 4 enporesen jarraipena burutu da eta 4 berriekin hasi da. Covid-19 pandemia dela eta, harremanak atzeratu egin dira, uda ostean ekingo zaio berriro proiektuari.

GOIERRIKO GIDA INDUSTRIALA

Goiekik betidanik eskaini duen zerbitzutako bat bailarako gida industrialak izan da. 2020 urtean gida hori eguneratuko da GEIS plataforman dagoen informazioa eguneratuz. Bertan, Goierriko poligono guztien inguruko informazioa agertzen da, okupazio maila, enpresa lista, etab.

PARKE EOLIKO TXIKIEAN KONSTRUKZIOA BURUTZEKO IDEIAREN LANKETA

Bailarako enpresa traktorea den Transbiagaren eskutik, parke eoliko txikien eraikuntza burutzeko proiektua etorri da. Energia munduan dauden firma handiek parke handiak eraikitzen dituzte gainazal handietan. Lan hau burutzeko unibertsitateko ikasle bat hartu da, gradu amaierako proiektua hau izan delarik.

Orain arte Euskadi mailan dauden kokapen posibleak aztertu dira, Eusko Jaurlaritza berak buruturik duen ikerketa baten ondorioak aztertuz.

BESTE ZERBITZU BATZUK

Goiekik beti hainbat zerbitzu eskaini izan ditu enpresen garapenerako. Orain arte aholkularitza eman zaie hainbat enpresei honako gai hauetan.

- • Enpresaren kudeaketan
- • Teknologiak
- • Etengabeko hobekuntza
- • Formakuntza

2. GOIERRI VALLEY

SARRERA

Dokumentu honek 2020ko Jardueren Memoria jasotzen du, eta aipatutako ekitaldian egindako jardueren xehetasunak jakinarazten ditu.

Beharrezkoa da memoria hau dagokion testuinguruan kokatzea, hain ezohikoa den urtean, zeina Covid-19k eragindako krisi sozio-ekonomiko-sanitarioak markatu baitu. Krisi horrek urtearen hasieran zeuden aurreikuspen guztiak aldatu ditu, bai enpresentzat, bai elkartearentzat. Horren ondorioz, Goierri Valleyk 2020ko otsaileko Ezohiko Batzar Orokorrean onartutako Kudeaketa Plana berregokitu du, eta 2020ko uztaileko Ohiko Batzar Orokorrean hura berregokitzea onartu da.

Egungo krisiak, ekitaldi honetako Kudeaketa Plana berregokitzeaz gain, proiektu askoren egutegia eta formatua aldatzera eraman gaitu. Horregatik, oro har modu presentzialean egingo liratekeen jarduera ugari modu birtualean egin dira; eta, era berean, Kudeaketa Planean aurreikusitako jarduera asko urteko azken hiruhilekoan pilatu dira. Ziur gaude bi faktore horiek enpresa batzuek hasiera batean interesatzen zitzaizkien jardueretan parte hartzea eragotzi dutela.

BISIO ETA BALOREAK

BISIOA: Goierriko eraldaketa industrialaren motor izatea.

NORI ZUZENDUAK GAUDEN: Goierri Valley lehiakortasun industrial helburu duten eta etorkizuneko ikuspegia duten enpresa eta erakundeentzako marka da.

ZER ESKAINTZEN DUGUN: Bailarako gaitasunen inguruan dugun ezagutzak produktu sorta zabala, nahiz soluzio industrial integralak bildu, garatu eta kudeatzea ahalbidetzen digu.

ZERK EGITEN GAITUEN BAKAN: Elkarlana jorratzen dugu, hori da gure helburu eta esentzia: Goierriko eraldaketa industrial lideratzen dugu, enpresa bazkideen benetako eta aktiboa den elkarlanaren bidez, ezagutza elkarbanatuz eta berrikuntza txertatuz, lehiakortasun industrial eta gure inguruko industriaren jasangarritasuna bermatuz.

ZER GAREN: Mundu mailan integral, berritzaile, lehiakor eta neurrira egindakoak diren soluzioak eskaintzen dituen metal-mekanika sektoreko partner industrial osoena gara. Goierri (Euskal Herria) bailaran kokatuak, bertako eraldaketa industrial lideratzen dugu, benetakoa eta aktiboa den elkarlanaren bidez, ezagutza elkarbanatuz eta berrikuntza txertatuz, lehiakortasun industrial eta gure inguruko industriaren jasangarritasuna bermatuz.

GURE BALOREAK:

- Jakintza elkarbanatuaren bidez, lehiakortasuna: Produktu berrien garapena, sektore eta merkatu berrietan sartuaz, Goierriko ehun industrialaren lehiakorrena izatea bermatzeko.
- Ilusionatuak eta gauzak beste era batera eginaz hobetzeko prest: Eraldaketarako eta laguntzeko inplikatzeko, elkar ezagutzea eta elkarrengana gerturatzeko. "Beti hala egin da" esan eta konformatzea alde batera utzi behar den ideia da.
- Urrutira iristeko gertu begiratu behar da: Parte sentitzeak batzen gaitu. Goierriin gaude eta gure inguruarentzat etorkizun jasangarri bat eraiki nahi dugu.
- Eboluziorako aliantza: Ez bada bat eginda lan egiten, ez da benetako hazkunderik. Industria mailako harremanak pertsonen arteko harremanetara daramatzagu. Guztiok dena emateak indartsu egiten gaitu. Bazkide guztion lankidetzaren benetakoa, aktiboa eta leiala.

HELBURUA

Goierri Valley-ren helburua [Goierri eskualdeko industria garapena promozionatzea](#) da, lankidetzaren edozein eratan sustatuaz enpresa eta beste hainbat eragile publiko eta pribatuen artean. Enpresen lehiakortasunari eragiten dien arlo guztietan, merkatu eta produktuen dibertsifikazioan, berrikuntza teknologiko eta ez teknologikoan eta formazioan.

ERRONKAK

Goierri Valley-ko enpresek adostu eta lehenetsitako erronkak honako hauek dira:

INTERKOOPERAZIO SAREA (Traktore-ETE, ETE-ETE):

- Traktoreen estrategien informazioaren ezagutza erraztea
- Traktore-ETE harremana garatzea, balio erantsizko proiektuen garapenaren alde.
- Lankidetzan, produktu, sektore, merkatu eta kudeaketa arloetan, balio erantsizko proiektuak garatzea.

LANKIDETZA SAREA (traktoreen artean):

- Traktoreen arteko harremana bultzatzea, sinergiak (bilerak Goiekitik kanpo).
- Pertsonen sarea, traktoreen artean mailakako kontaktuen garapena.
- Lankidetzaren proiektuen garapena, JV eta Start up-ak

ETE-A INDARTZEA

- ETEa indartzea, traktoreen laguntzaren bidez.
- Merkatu eta sektoreko antena teknologiko izatea, traktoreen artean elkarbanatu eta ETE-ei ezagutza aurreratura irisgarritasuna erraztuaz.
- ETE-a 4.0an kapazitatatu eta sentibilizatu

IKUSGARRITASUN ETA NOTORIETATEA:

- ETE, Traktora eta erakundeetan marka posizionatzea.
- Enpresa eta erakundeetan lobby izatea.
- Goierriko enbaxadoreen datu basea
- Ko-marka egitea

BALIO ERANTSIZKO ZERBITZUAK

- ETE eta traktoreei eskaintzeko balio erantsizko zerbitzuen portfolio bat edukitzea.

EKINTZAK

INTERKOOPERAZIO SAREA

GOSARI AURKEZPENAK

Enpresen arteko elkar ezagutza eta hauen jardunbide egokiak ezagutzera ematea sustatzeko baliatu diren aurkezpen gosarien antolaketa Elkar Ezagutzen proiektuaren ondorio dira. Proiektu horren helburua enpresa traktoreen arteko harremanak sustatzea izan zen. Aurkezpen gosari hauen helburua elkarteko bazkide guztiek euren burua ezagutzera emateko eta euren gaitasunak gainerako bazkideen aurrean aurkezteko espazio bat izatea da.


Sarrerari aipatu bezala, aurkezpen gosari horien egitura aldatu egin da ekitaldiak aurrera egin ahala: martxora arte, egitura hau izan da: saio bakoitzean enpresa traktore bat, ETE bat eta zerbitzutako enpresa bana aurkeztu dira. Ondoren, galderei ematen zaie aukera, eztabaida sustatzeko. Aurkezpen horiek gosari batekin amaitu izan dira. Maiatzetik aurrera, normaltasun berrian murgilduta, egitura aldatu egin da: bi enpresa aurkeztu dira aldiro, modu birtualean. Beraz, ez da ondorengo solasaldirik izan gosarian.

- Martxoaren 4ko saioa: Pignon, Tacticco eta MyEUME aurkeztu dira eta 10 enpresatako 15 pertsonak parte hartu dute.
- Urriaren 8ko saioa: Engitools eta Sakona aurkeztu dira Consulting-era. 14 enpresatako 14 pertsonak parte hartu dute.
- Urriaren 28ko saioa: Goilaser eta Enerdom Consulting aurkeztu dira. 9 enpresatako 10 pertsonak parte hartu dute.
- Azaroaren 18ko saioa: Jatur eta Mail Boxes aurkeztu dira. 16 enpresatako 19 pertsonak parte hartu dute.

Hauek izan dira saioaren balorazioak:

Saioa	Urtea	Balorazio orokorra	Lekua	Ordutegia	Edukia	Hizlariak	Aplikagarritasuna	Irigarritasuna
7	2020	8,7	9,3	9,2	8,9	8,7	8,5	
8	2020	8,1	8,4	9,1	8,1	7,8	7,3	9,1
9	2020	7,3		8,6	8,3	7,6	7,4	8,1
10	2020	8,6		8,4	8,6	8,9	6,9	7,9
		8,5	9,1	8,9	8,6	8,6	7,7	8,4

Honako grafikak gaur arte antolatutako gosari aurkezpen guztien (10) balorazioak biltzen ditu:



DATU BASEA

Ordezkarien datu baseak enpresen arteko elkar ezagutza sustatzea du helburu. Datu base hau enpresen artean zabaltzearen helburua bazkide guztiek gainerako bazkideak ezagutzeko modua izatea eta enpresen ordezkarien artean etorkizuneko proiektuak ahalbidetzea da, elkarteko ordezkariekin zuzeneko kanal bat erabiltzeko aukerari esker.

Ekitaldi honetan elkarteko lau bazkide berriei buruzko datuak sartu dira (Dispes, Elektra, Iruko Berri eta Optimiza Mikromarketin).

WIN&WIN PROIEKTUA

Win&Win proiektuaren nondik norakoa bi ataletan banatuko da:

- Win&Win proiektuaren ondorengo sinergien jarraipena (produktu berriak)

2017-2018 urte bitartean garatutako Win&Win proiektuaren azken faseak enpresen arteko sinergiak identifikatzea izan zuen helburu. Bertan, enpresen arteko sinergia mota desberdinak jarri ziren mahai gainean. Horiei guztiei jarraipena egin zaie eta elkarteak balioa eman zezakeela ikusi da.

Gaur egun, traktoreen eta ETEen arteko lankidetzak-proiektuak daude, eta horiei jarraipena egiten saiatu gara. Ekitaldi honetan, nahiz eta proiektu horiei jarraipena egin eta denboran aurrera pausoak egiten saiatu, ez da gehiegi aurreratu, arrazoi nagusia enpresen lehentasun-aldaketa eta pandemia izan dira.

- Win&Win proiektuaren reedizioa – Value SHARE

2020an, Value SHARE proiektua jarri da martxan, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta, Win&Win proiektuari berrekiteko, hobekuntzak txertatuz eta lehen edizioko gabeziak betetz.

Win&Win proiektuan abiarazitako Enpresa Garapen Elkarlanerako Traktorea-ETE eredua indartzea eta sendotzea izan da proiektuaren helburua. Azken xedea eskualdeko industria-eraldaketa bizkortzea izan da, gaitasunak biderkatzen dituzten balio-kateak finkatuz, merkatuari irtenbide bereizgarriak eskaintzeko.

Proiektu honek hiru fase izan ditu enpresei begira:

- Balio katearen kontsolidazioa. Garatutako lan-ildoak honako hauek izan dira: prozesuaren diseinua, metodologia eta enpresen kontrasterako tresnak, batetik; kontrastea galdetegi baten bidez gauzatzea, bestetik; eta "gap-ak" edo maila kritikoetako hobekuntza-eremu garrantzitsuak identifikatzea, azkenik. Beste ondorio batzuen artean, nabarmentzekoa da eskualdeko industriaren erronkak eta aukerak identifikatu direla:
 - Talentua erakarri, garatu eta fidelizatzea
 - Digitalizazioa eta prozesu-teknologiak, berrikuntzara bideratuak
 - Jasangarritasunera bideratutako gizarte- eta enpresa-konpromisoa

Erronka nagusi horiei aurre egiteko, ETEak gaitzeko hiru erronka identifikatu dira:

- Dibertsifikazioa
- Produktibitatea
- Kudeaketa-sistemak

- Partekatutako Begirada Estrategikoak. Fase honetan begirada estrategikoko hiru saio egin dira AMPO, CAF eta Arcelor Mittal Olaberriaren eskutik. Begirada horien laburpen-dosierrak enpresa guztien eskura jarri dira intranetean.

Enpresek balorazio hau egin dute:

	Balorazio orokorra	Aplikagarritasuna	EDUKIA: sektorearen etorkizuna	EDUKIA: traktorearen etorkizuna	EDUKIA: hornitzaileekiko etorkizuna
AMPO	8,9	8,1	8,2	8,3	7,0
CAF	8,0	7,5	8,0	7,9	7,7
ARCELOMITTAL	8,2	7,6	6,7	8,2	6,3

- Value SHARE Sinergiak. Balizko sinergiak identifikatu dira, lankidetzan garatzeko proiektuak, hain zuzen ere. Gainera, enpresentzako aukera bateratuak partekatu dira eta eskualdeko industriaren aurrerapena bizkortzeko aukerak bideratu dira. Goierriko metal-mekanika industriaren lan ildoei dagokienez: industria eraldatzea eta garatzea beharrezko ikusten da lehiakorragoa izan dadin. Horretarako, talentua zeharka landu beharko da, honako jarduera-ildo hauei aurre egiteko:
 - Digitalizazioaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egitea.
 - Trantsizio ekologikoa eta ekonomia zirkularrerako urratsak ematea.
 - Gizarte balio partekatua sortzeko proiektu bat bultzatzea.
 - Nazioartekotzea, dibertsifikazioa eta etengabeko hobekuntzan lan egiten jarraitzea.

Gainera, sinergia hauek landu dira:

- Sinergia posibleak identifikatzea, hainbat lan ildori tiraka.
- Hornitzaileak hobetzea
- Enpresa txiki eta ertainak harremanetan jartzea intereseko enpresa traktoreekin
- Balorazioa eta bi enpresari elkarteari planteatu dizkieten proiektuen proposamenean laguntzeko aukera

MUNDUAN

Proiektu honen helburua Goierri Valleyko enpresei nazioartekotzean laguntzea izan da, eta, horretarako, honako ekintza hauek gauzatu dira:

Orokorra:

- Markaren posizionamendua: Goierri Valley marka sare sozialen bidez posizionatzen saiatu gara. Estrategia digitala ere landu da helburu diren lau herrialdeetara begira, datorren ekitaldian modu egituratuan lan egiteko.
- Mapamundia elkarteko enpresen kokapenarekin eguneratu eta bazkide guztien eskura jarri da.
Mapamundi horretan, lau enpresaren informazioa eguneratu da, eta 13 enpresak partekatzen dute nazioartean duten presentziari buruzko informazioa, 74 herrialdetan.



Frantzia: merkatu honen helburua eskualdeko enpresa eta ingeniariak identifikatzea zen, hala nola, azoka sektorial interesgarriak aztertzea. Sektore interesgarri ugari daudenez, trenbide-sektorea lehenetsi da, enprekin batera baliozkotzeko, beste sektore batzuetako azterketa batzuekin jarraitu aurretik.

Honenbestez, Frantziako tren-industriaren azterketa bat egin da Basque Trade&Investment (BTI) erakundearen eskutik, eta honako puntu hauen azterketa egin da: kokapena (industria-instalazioen kokapena, eskualdearen ikuspegitik), key playerrak (ikuspegi orokorra eta enpresen fitxekin), ekitaldi nagusiak eta sektoreko enpresa elkarte nabarmenenak.

Lehen aipatutako azterketaren datuak bildu ondoren, enprekin partekatu nahi izan da azterketa hau, ondoren erabakiak hartzeko; baina enpresen egoerak ez du nazioartekotze lantaldearen bilerarik antolatzea ahalbidetu.

Mexiko: otsailean, pertsona bat bidali da Mexiko Hirira Global Training bekarekin, bertatik bertara lanean aritzeko, interesatuta zeuden elkarteko enpresentzako negozio-aukerak identifikatzeko. Mexikora joan aurretik, pertsona horrek hainbat bisita egin ditu, enpresek merkatu horretan dituzten beharrak eta interesa gertutik ezagutzeko.

Mexikora bidalitako pertsonak apirilean itzuli behar izan du, Covid-19aren pandemiaren ondorioz, eta, beraz, datorren urtean jarraituko da proiektu honekin.

Alemania: Frantziako merkatuan egin nahi zen bezala, 2020ko irailetik aurrera aukerak, ingeniartzak eta azoka sektorialak identifikatzea zen helburua, Alemaniako lantaldeari helarazteko. Horretarako, bilera bat deitu da BTIren eskutik Frantzian egindako azterlana enpresen aurrean aurkezteko eta Alemaniako merkatuan gauzatu beharreko ekintza-plana baliozkotzeko. Baina enpresen egoerak ez du nazioartekotze lantaldearen bilera bat antolatzea ahalbidetu.

Txile: gaur egun hainbat enpresa ari dira lanean bezero potentzialak identifikatzeko Gertukoren eskutik. Dagokion jarraipena egin zaio.

Nazioarteko paradigma-aldaketa dela eta, aurreko puntuetako batzuetan aipatu den bezala, nazioartera zabaltzeko interesa duten enpresak herrialde bakoitzeko bileretara deitu dira, merkatu bakoitzaren egoeraren eta enpresen etorkizuneko asmoen jarraipen egokia egiteko herrialde horietan. Baina pandemiaren ondorioz, enpresa gutxiak baieztatu dute bilera horietara bertaratzea. Hori dela eta, bilera horiek atzeratzea erabaki da, interesa duen enpresa bakoitzarekin telefonoz hitz egiteko eta merkatu bakoitzari buruz dituzten iritziak ezagutzeko, baita merkatu horietan dituzten interesak eta etorkizuneko aurreikuspenak ezagutzeko ere.

2020 ekitaldian, harremanak estutu dira BTIrekin, eta elkartearen kezkak eta beharrak azaldu zaizkio, baita etorkizuneko aurreikuspenak ere.

Era berean, elkarteak BTIren finantzazioa lortu du 2020ko ekitaldian, nazioartekotzera bideratutako gastuei aurre egiteko.

ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZAKO PROIEKTUAK

Lehenago aipatu bezala, elkartearen eta hainbat proiektuen helburua enpresa bazkideen arteko lankidetzak bilatzea da.

Lankidetzak jarduera horietako asko proiektu desberdinen emaitza dira, baina badira enpresetako pertsonen arteko elkar ezagutzari esker ere ematen diren aukerak.

Elkarteak horrelako lankidetzak proiektuen jarraipena ere egiten du, behar izanez gero, laguntza eskaintzeko.

Hauek izan dira lankidetzak-ildoak:

- Goierri Valleyko kide ez diren 4 enpresak oferta eskaerak bidali dituzte egunerokoan sortzen zaizkien soluzio berriak garatzeko. Horietako bat Alemaniako enpresa bat izan da. Beste hirurak euskal enpresak izan dira.
- Enpresa bazkide batek aukera bat izan du nazioarteko merkatuan, eta herrialde horretan dagoen beste enpresa bazkide batekin jarri da harremanetan.
- Elkarteak zenbait enpresak elkarteak beste enpresa batzuekin harremanetan jartzeko eskatu dute.

Enpresen arteko lankidetzaproiektuak eta sinergiak sortzeko aukera emateko, 2020an tresna berri bat jarri da intranetean enpresen eskura: Foroa.

Helburuak hainbat dira: batetik, enpresei eskaintzen dituzten zerbitzu eta produktuak ezagutaraztea ahalbidetuko dien tresna bat izatea, eta, bestetik, enpresa bazkideekin une jakin batean izan ditzaketen behar zehatzak partekatzea.

Foroa 2020ko azaroan jarri da martxan eta oraindik ez da emaitza neurgarririk ikusi.

LANKIDETZA SAREA

Traktoreen arteko harremanak estutzeko helburuz martxan jarritako Elkar Ezagutzen proiektuan lehenetsikotako ekintzak honako hauek dira:

MAILAKAKO FOROAK:

Aurreko urteetan enpresa traktoreek proposatutako mailakako lau foroan jarraipena egin da. Foro horietako bakoitzean enpresa traktoreetako departamentu bakoitzeko arduradunek parte hartu eta elkarren artean informazioa partekatu dute, ondoren eremu bakoitzean egin beharreko ekintzak abian jartzeko.

Foro bakoitzaren bilakaera nabarmen aldatu da:

- Erosketak: mahai honek hainbat ardatz landu ditu 2020ko ekitaldian:
 - Enpresan logistika lantzeko modua partekatzea. Urtarrilean hasi ziren lanean eta bi enpresa bisitatu zituzten (GH eta Ampo). Pandemia iritsi ondoren, bisitak bertan behera utzi dituzte, bisitei ezarritako murrizketengatik.
 - Elkartearen Erosketa Zentrala. Foroaren egoera aztertuta (alde batetik, ezin izan da bisitarik egin, eta, bestetik, orain arte landutako gaiek ez dute ekarri traktoreen arteko lankidetzarik), enpresek ardatz berri bat lantzea erabaki dute. Hainbat material eta hornikuntza batera erostea, erosketa-zentral baten bidez, elkarteko enpresa guztientzat, jarduera horrek duen potentziala kontuan hartuta, pandemia garaian NBEen erosketarekin egin zen bezala. Erosketa bateratua burutzeko lankidetzaz-eredu posibleak lantzeari ekin zaio, eta NBEen familia aztertzen ari gara, abiapuntu gisa.

2020an, Erosketa Mahaiaren lau bilera egin dira, eta, guztira, 7 enpresak parte hartu dute.

- Lan Arriskuen Prebentzioa: mahai honek hainbat ardatz landu ditu ekitaldi honetan:
 - Enpresak bisitatzea, lan arriskuen prebentzioaren funtzionamendua ezagutzeko. Bilera bat egin da Orklin, baina pandemiaren ondorioz, bisita hauek bertan behera geratu dira.
 - Prebentzioaren ikuspuntutik kudeaketa garatzeko modua partekatzea, pandemiaren aurrean. Protokoloak partekatu dira enpresen artean.
 - Laneko osasun-zerbitzuak. Eskualdean lan-osasuneko zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat kokatzeko aukera landu da, berak garatzen duen eredua eskualdean ezartzeko. Eredu horrek lesioak prebenitzen laguntzen du, eta horrek enpresetako lan-absentismoa murrizten lagun dezake.

2020an, Laneko Arriskuen Prebentziorako Mahaiak bi bilera egin ditu, eta, guztira, 6 enpresak hartu dute parte.

- Giza Baliabideak: mahai honek lehentasuna eman dio enpresen prestakuntza-planak partekatzeari. Ildo horretan, elkartetik kanpoko erakunde batekin enpresentzat interesgarriak diren hainbat prestakuntzatara elkarre gisa sartzeko aukera lantzen ari dira.

2020an, Giza Baliabideen Mahaiak hiru bilera egin dira, eta, guztira, 7 enpresak hartu dute parte.

- Ekoizpena: hainbat saiakera huts egin dira mahai hau martxan jartzeko, baina ez da posible izan.

Guztira, foro desberdinetan parte hartu duten enpresak 9 izan, hau da, elkarteko enpresa traktoreen % 47.

Urte hasieran, foro horiek sendotzea jarri zen helburu. Esan daiteke, lau foroetatik hiru finkatu direla. Bestalde, ekoizpen foroa ezin izan da aktibatu. Beraz, beharrezko jotzen da bere garaian interesa agertu zuten enpresekin banaka lan egitea, parte hartzeko benetako interesa ezagutzeko, foro honi berriz ekitekotan, benetan martxan jartzeko izan dadin.

ENPRESETAKO ORDEZKARIEN ARTEKO HARREMANAK SUSTATU

Ekintza honen helburua enpresen arteko harremanak sustatzea da, eta lan-mahaietatik haratago joatea bilatzen du. Horregatik, egindako bilera bakoitzaren ondoren, kafe baten inguruko solasaldia sortzen saiatuko gara. Ekintza hau martxora arte garatu ahal izan da, pandemia iritsi ondoren gelditu egin baitira mota horretako jarduera eta topaketak.

Gainera, esan daiteke 2020ko ekitaldiak zailtasun bereziak izan dituela pertsonen arteko harremanak sustatzeko, ekintza gehienak bideokonferentzien bidez egiten direlako.

ETE-A INDARTZEA

PYMES LEAN

Proiektu honen jatorria Win&Win proiektua izan zen, eta ETEen antolaketa-eredua egokitzea izan du helburu, nazioarteko estandarren pareko industria-ereduak ezartzen laguntzeko, lehen mailako industria-hornitzaile gisa onartuak izan daitezen.

Horretarako, lankidetzan ari den enpresa-talde batean Lean eredua garatzera bideratutako proiektu bat arrakastarik gabe finantzatzen saiatu ondoren, banaka egiten saiatu gara; horretarako, hiru aholkularitza-enpresa espezializaturen arteko laguntza jasotzea eskaini zaie enpresei.

Hasiera batean 10 enpresak eman zuten izena, baina lehenengo bileraren ostean 7 izan ziren interesa agertu zutenak. Enpresa bakar batek ere ez du proiektua gauzatu elkarteak aholkularitza-enpresa espezializatuen bidez proposatu bezala. Hala ere, horietako bik beren kabuz landu dituzte Lean Manufacturing ereduari lotutako proiektuak; eta beste bik 5S eredua izan dute ardatz.

LEHIATUZ (INDUSTRIA 4.0 ETA INDUSTRIA 5.0)

Proiektu honen helburua Goierriko ETEen lehiakortasuna indartzea izan da. Horretarako, 4.0 industriarekin zerikusia duten kontzeptuak landu dira funtsean, enpresak hobetzen jarraitzeko beharraz sentsibilizatzeko abiapuntu gisa, industria aurreratua lortzeko, etorkizunari aurre egiteko gai izango dena; baita 5.0 industriarekin zerikusia duten gaia ere, jada aipatzen sendotasunez dena.

Horretarako, 4.0 industriari dagokionez, lau prestakuntza-saio telematikoko antolatu dira Tecnaliaren eskutik:

- 1. saioa: eraldaketa digitala: urriaren 27an egindako saioan, eraldaketa digitalaren eta 4.0 industriaren kontzeptuak sakondu eta landu dira.
- 2. saioa: teknologia-esparruak: azaroaren 3an egindako saioan, 4.0 industriaren lau esparrutan sakondu eta lan egin da, hala nola, enpresa automatizatu, zerbitizatu, malgu eta konektatua.
- 3. saioa: teknologia-esparruak: azaroaren 10ean egindako saioan, 4.0 industriaren lau esparru aurkeztu dira, enpresa hedatua, soziala, adimentsua eta ekojasangarria den aldetik.
- 4. saioa: ibilbide-orri propioaren azterketa eta diseinua: azaroaren 24an egindako bileran, enpresetan ikusitako ondorioak aurkeztu dira.

Guztira 13 enpresatako 20 pertsonak hartu dute parte, eta horietako hiruri ekimen berriak ezartzeko ekintza-plan bat lantzen lagundu zaie, enpresak industria adimendun baterantz eraldatzen laguntzeko.


Gainera, proiektuan parte hartu ez duen enpresa batek ekoiraunkortasunaren kontzeptuarekiko interesa agertu du, eta Tecnaliaren eskutik barne-prozesu bat diseinatzen lagundu zaio.

5.0 industriari dagokionez, kontzeptu berria denez, haren definizioa, joerak eta inplikazioak zehaztu dira, besteak beste. Informazio hori enpresen eskura jarri da intraneten.

ELEKTROMUGIKORTASUNA

Elektromugikortasunaren sektoreko Smart Mobility estrategia definitzeko proiektu bat diseinatu da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzen programetan aurkezteko.

Goierri Valleyk jarraitu beharreko estrategia elektromugikortasunaren sektorean zentratzea izango du helburu. Estrategia horrek eskualdeko enpresa-sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatuko ditu elektromugikortasunaren esparruan. Etorkizuneko lan-ildoak eta Goierri Valleyren rola erabakiz, batetik, eta martxan jarri beharreko ekimenen plana ezarriz, bestetik.



- Aukera-espazioak identifikatzea:
 - Elektromugikortasunaren sektorearen baitan dauden eta Goierri Valleyk rol bat izan dezakeen jardueretan lotutako traktoreek eta enpresa txiki eta ertainek dituzten estali gabeko beharrak ezagutzea.
 - Goierri Valleyk eragina izan dezakeen eta estali gabeko espazio bat dagoen enpresa traktoreen eta ETEen aukera eta ekimen oro identifikatzea.
 - Goierri Valleyko aukera- eta ekarpen-espazioak definitzea, EAEk eta lurraldeak eremu horretan duten estrategia eta eremu horretan esku hartzen duten eragileen rola kontuan hartuta.
- Lan-ildoak eta rola erabakitzea:
 - Aurreko fasean lortutako emaitzen arabera, etorkizuneko lan-ildoak definitzea, Goierri Valleyk elektromugikortasunaren sektorean duen balio-proposamena.
 - Eragile esanguratsuekin etorkizuneko lan-ildoak eta Goierri Valleyren balio-proposamena kontrastatzea elektromugikortasunaren sektorean.
 - Aurreko jardueren emaitzen arabera, erabakitako lan-ildoetan Goierri Valleyren rola erabakitzea.

- Estrategia lurreratzea:
 - Zehaztutako lan-ildoekin lotuta abian jarri beharreko ekimenak/proiektuak identifikatzea.
 - Ekimen/Proiektuen Master Plana ezartzea, Goierri Valleyko lehen "esprinta" erabakiz.

SUZESIOA

Proiektu honen helburua ETEak bere enpresaren ondorengotzarako prestatzea da, lekukoa ematerako orduan. Horretarako, lehen mapaketa bat egin da, enpresen egoera ezagutzeko eta zein fasetan dauden identifikatu eta banakako laguntza eskaintzeko.

Ekitaldi honetan, enpresa bati ekonomia sozialeko diru-laguntza baten eskaeran lagundu zaio: enpresetan bazkide berriak sartzeari errazten diene diru-laguntza da. Oraindik ez da jaso diru-laguntza horren ebazpena.

ETE-EN EROSKETA FOROA

2020an ETEak Erostekeko Foroa abian jartzea aurreikusi zen, ETEen beharrei erantzuteko. Foro hori ekitaldiaren azken hiruhilekoan martxan jarri nahi bazen ere, agendak ez du ahalbidetu foro horren lehen bilera egitea.

Hala ere, lehenengo bileran landu beharreko ildoak zehaztu dira. Besteak beste, Traktoreen Erosketa Foroak Erosketa Zentralari buruz proposatutako ikuspegia aztertuko dute.

Era berean, enpresa txiki eta ertainentzako erosketetatik lehiatzeko proiektu bat diseinatu da, elkarlanean egon daitezkeen sinergiak identifikatzen eta enpresen kostuak murrizten laguntzeko. Proiektu hori, etengabeko hobekuntzarako proiektua denez, ezin du elkarteak aurkeztu, eta, beraz, interesa duten enpresei proiektu hori barnetik garatzea proposatuko zaie.

IKUSGARRITASUNA ETA NOTORIETATEA:

Erronka honen helburua Goierri Valley marka ezagutaraztea izan da, aurreko ekitaldian garatutako Komunikazio Plana abiapuntutzat hartuta.

Adierazi behar da ezinezkoa izan dela 2020rako aurreikusitako komunikazio-plana osorik gauzatzea, bizi izandako pandemiaren ondorioz. Hala ere, baieztatu daiteke urte hasieran aurreikusitako ekintza gehienak era eraginkorrean gauzatu direla.

2020ko Komunikazio Planaren helburua elkarteak sortu zenetik lantzen ari diren hiru publiko hauetara begira gauzatzen den komunikazioa sendotzea izan da:

BAZKIDEAK

Target honen helburua elkartearen komunikazio-plataforma sustatzea izan da, oinarri sendo batekin, ondorengo komunikazioa eraginkorra eta sendoa izan dadin. Ordezkarietatik harago, enpresa bazkideetako ahalik eta pertsona gehienengana iristea izan da helburuetako bat. Eta, pertsona gehiagorengana iristeaz gain, elkartearen egunerokotasunari buruzko gero eta informazio gehiago enpresen eskura jartzen saiatu gara:

- Hileroko buletina: informazio gehiago eta pertsona gehiagori zabaltzeko, ezinbestekoa izan da maiatzaz geroztik zabaldu den hileroko buletina argitaratzea, intraneta oinarri hartuta – Elkarteari dagokion informazio guztia intranet horretan txertatzen eta eguneratzen saiatu gara –. Gaur egun, buletin hau 130 pertsonari bidaltzen zaie.

Buletinaren jasotzearen bilakaera nahiko egonkorra izan da, eta harrera ona izan du hasieratik.

Buletinaren bilakaera 2021eko maiatzean frogatzea aurreikusten da, lehen aldiz zabaldu zenetik urtebete igaro denean.

- Intraneta eguneratzea: ekitaldi honetako beste helburuetako bat intraneta etengabe eguneratzea izan da. Buletinaren argitalpenarekin batera, beharrezkoa izan da intraneta eguneratzea. Horrez gain, dinamismoa eta intranetaren beraren erabilera bultzatzeko hiru tresna berri gehitu dira. Tresna berri hauek txertatu dira:
 - Intraneteko foroa. Enpresen proposamen desberdinak zein pertzepzioak partekatzeko gunea da. Urtearen amaieran aktibatu da, eta hurrengo urtean baloratu ahal izango da honen erabilera eta baliozkotasuna.



Reciente Categorías

KANPO ESKEINTZAK / OFERTAS EXTERNAS

	Publicado por	Última respuesta
MAGNET: TU COLABORADOR PARA TUS NEGOCIOS DIGITALES "Nuevo"	hace 2 días aproximadamente	-
ÚNETE A BASQUEXPORT, LA PLATAFORMA DEL GOBIERNO VASCO QUE TE AYUDA A EXPORTAR "Nuevo"	hace 6 días aproximadamente	-

"Todas las publicaciones" "Publicaciones no leídas" Mostrar 2 de 2 consultas

Página : 1

- o Deskarga gunea: tresna honek enpresekin partekatu beharreko dokumentu guztiak era simple eta sailkatuan haien eskura izateko aukera ematen du.



DESKARGATU DOKUMENTUAK
00 OROKORRA / GENERAL
01 ELKARLANERAKO SAREA / RED DE INTERCOOPERACIÓN
02 LANKIDETZA SAREA / RED DE COLABORACIÓN
03 ETEA INDARTZEA / FORTALECER LA PYME
04 IKUSGARRITASUNA ETA NOTORIETATEA / VISIBILIDAD Y NOTORIEDAD
05 BALIO ERANTSIZKO ZERBITZUAK / SERVICIOS DE VALOR AÑADIDO
06 FOROAK

- o CVen datu-basea: tresna honen bidez, elkarrekin jasotzen dituen kurrikulumak intraneterako sarbidea duten pertsona guztien eskura jarri nahi dira, talentua bilatzen duten enpresen eta lana bilatzen ari diren pertsonen arteko lotura ahalbideatzeko.



MENU

05 SERVICIOS DE VALOR AÑADIDO

[Retos y Proyectos](#)

IMPLANTANDO ILUSIÓN

FORMACIÓN

OTROS SERVICIOS DE VALOR AÑADIDO

GESTIÓN DE AYUDAS

MESA DE INVERSIÓN

CV-s

GESTIÓN DE ESPACIOS INDUSTRIALES

GUÍA INDUSTRIAL CON TECNOLOGÍAS

CURRÍCULUMS

Diversas personas que buscan trabajo nos han enviado sus Curriculum Vitae-s a la asociación. Teniendo en cuenta que las empresas están en plena búsqueda de talento, se darán a conocer a las empresas los perfiles recibidos una vez al mes.

Para cumplir con la ley de protección de datos, el procedimiento a seguir será el siguiente:

- Se colgarán los perfiles de los CVs recibidos a final de mes y estarán disponibles en el plazo de un año.
- Quien esté interesado en un CV concreto, deberá enviar un mensaje a ane@goierrrivalley.com, indicando qué perfil le interesa y en qué dirección de email quiere recibir dicho CV.
- Goierrri Valley transmitirá al candidato la empresa que está interesada en recibir un CV y a qué correo electrónico lo debe enviar.

ADE

ADMINISTRACIÓN

DERECHO

ELECTRICIDAD Y ELECTRÓNICA

GESTIÓN AMBIENTAL

INGENIERÍA EN AUTOMATIZACIÓN Y CONTROL

INGENIERÍA INDUSTRIAL

INGENIERÍA MECÁNICA

INGENIERÍA MEDIOAMBIENTAL

INGENIERÍA QUÍMICA

INFORMÁTICA

INTERNACIONALIZACIÓN

MECANIZACIÓN Y MONTAJE

MECATRÓNICA

PRODUCCIÓN MECÁNICA

PSICOLOGÍA Y COACHING

SOLDADURA Y MANTENIMIENTO

(191101) ADE, recién finalizados los estudios
 (200601) ADE, recién finalizados los estudios, realizadas varias prácticas
 (200703) ADE con experiencia
 (200705) ADE, master en innovación [CV_200705]

136 enpresa dira intranetera sarbidea dutenak, eta horietatik 80k erabiltzen dute maiztasunez. Hala ere, nabarmendu behar da erabiltzaileak hezteko beharra dagoela enpresei intranet hori erabiltzearen onurak helarazi eta ohiturak finkatuz.

- Sentsibilizazioa: irailaren 29an, solasaldi interesgarri bat egin zen, enpresak markaren garrantziaz sentsibilizatzea sustatzeko. Saio horretan Goilaserrek eta Tacticcok parte hartu zuten, gaiari buruz zuten ikuspegia eta esperientzia aurkeztuz. 19 enpresatako 20 pertsonak hartu zuten parte, eta honako balorazio hauek lortu dira:

Balorazio orokorra	Iraupena	Ordutegia	Edukia	Aplikagarritasuna	Irisgarritasuna
8,0	9,0	9,3	8,0	8,1	9,3

GOIERRI

Eskualdearen kasuan, elkarte eskualdeko erakundeen eta biztanleen artean ezagutaraztea izan da helburua. Bazkide ez diren enpresak erakarri eta elkarteara gerturatzea, elkarte gisa hazten jarraitzeko. Horretarako, hiru ekintza nagusi egitea aurreikusi zen: elkarte tokiko erakundeetan ezagutaraztea, jardunaldi eta aurrez aurreko bisiten bidez; bazkide berriak erakartzeko kanpaina bat egitea; eta eskualdeko enpresei zuzendutako buletin bat abian jartzea.

Memoria honen aurreko puntuetan azaldu den bezala, urtearen hasieran egindako aurreikuspen oro birplanteatu egin behar izan da. Horren ondorioz, elkarteak helburuko publiko horri egin beharreko komunikazioa atzeratu du, puntu honetan aurreikusitako ekintza gehienak aurrez aurrekoak baitziren.

BEZEROAK

Elkarteko enpresen bezero potentzialei begira landutako helburua marka ezagutaraztea izan da, eskualde-mailan eta nazioartekotze proiektuan lehenetsitako herrialdeetan, hain zuzen ere.

Horretarako, web orria eguneratuta eduki nahi izan da, eta sare sozialetan era aktiboan agertu.

Era berean, 2021ean garatzeko estrategia digital bat garatu da, non elkarte digitalki kokatzeko apustua egin den estrategikoak diren lau merkatuetan, hala nola, Frantzian, Mexikon, Alemanian eta Txilen.

Azkenik, ekitaldi bakoitzean bezala, elkartearen katalogoak eguneratu dira, berriki sartutako bazkideei buruzko informazioa gehituz.

BALIO ERANTSIZKO ZERBITZUAK

COVID-19 BIRUSAK SORTUTAKO ALARMA EGOERARI AURRE EGITEA

Koronabirusaren pandemiaren iritsierak enpresa guztien eta elkartearen aurreikuspenak gainditu zituen. Horrek erreakzionatzera eraman gintuen, bizi izan genuen une bakoitzean enpresei ahal zen heinean laguntzeko. Eskainitako zerbitzuak hainbat multzotan sailkatzen dira:

- Elkarteko enpresekin etengabeko harremana izatea, haien egoera gertutik ezagutzeko eta laguntzarik behar izan duten eremuetan jardun ahal izateko.
- Enpresen ekoizpen-jarduerari eustea: horretarako, bi alderdi landu dira:
 - NBE eta maskarak erostea. 47 enpresak parte hartu zuten pandemiaren lehen asteetan gauzatutako erosketa bateratuan. Guztira, honako hauek erosiz:
 - 78.000 musuko
 - 10.000 eskularru
 - 1.500 gel
 - 1.000 spray
 - 1.700 betaurreko
 - Gutxieneko jarduerara itzultzea: lehen eskutik eta lehenbailehen informazioa emanaz, beren jarduera berriro martxan jarri nahi izan dutenek lehenbailehen egin zezaten.
- Zerbitzu-eskaintza: hainbat administrazio publikok abiarazitako diru-laguntza eta zerbitzuak enpresen artean zabaltzeko lan egin zen, Alarmaren Egoeraren deklarazioaren ondoren.
- Aldian-aldean GFari enpresen egoeraren berri eman zitzaion, administrazioak lurraldeko enpresa-sarearen errealtatea ezagutzeko duen berariazko premia bati erantzuteko.

"ILUSIÓN" TXERTATZEA

Proiektu honen helburua pertsonen konpromisoan eta parte-hartzean oinarritutako kulturaren aldeko apustua egiten duen enpresa-sare indartsua sortzen laguntzea izan da. Pertsonen aldeko apustua egiten duen industria sortzea, etorkizuneko lehiakortasunaren eta jasangarritasunaren arrakastaren giltzarri gisa. Ezagutzaren eta ikaskuntza partekatuen bidez, konpromisoaren aldeko eta talentua erakarri eta fidelizatzeko eredu parte-hartzaileagoak eta ilusionagarriagoak sustatuz.

Bide horretan, 2019an sentsibilizazio-fase bat egin ondoren, identifikatutako faktoreetako bat ezarri da 10 enpresatan: lidergoa, proiektu partekatua edota komunikazioa.

Proiektuak honako egitura izan du:



- Ezagutza komunitatea, 1. saioa (urtarrilaren 28a): 6 enpresatako 11 pertsonak parte hartu dute.
- Ezagutza komunitatea, 2. saioa (maiatzaren 19a): 6 enpresatako 9 pertsonak parte hartu dute.
- Saio irekia. Aurrez aurreko jardunaldi bat antolatzea aurreikusi bazen ere, pandemia garaiko zailtasunen aurrean, bideo bat egin da, non enpresa batzuek beren esperientzia kontatzen duten.

Proiektu hori GFAk kofinantzatu du.

Proiektua gauzatu ondoren, eta Covid-19 pandemiak markatutako gertakariekin, proiektu berri bat diseinatu da datozen hilabetei begira lan egiteko. Talentuarekin eta pertsonekin lotutako proiektu berri honen helburu nagusia enpresetako zuzendariei eta arduradunei laguntzea da partaidetzan, pertsonen etengabeko ikaskuntzan eta talentuaren garapenean, egungoa bezalako ziurgabetasun uneak iristen direnean.

Proiektuak bi fase izango ditu:

- 1. fasea: zazpi saioz osatutako programa da, eta hainbat enpresatako kideak bertaratu ahal izango dira. Saio bakoitzean, lider eta erakunde eraldatzaile eta parte-hartzaileak lortzeko helburuarekin lotutako gai bat landuko da.
- 2. fasea: enpresekin banaka lan egingo da, aurreko fasean landutako gaietan sakonduz. Fase hori lau saiokoa izango da enpresa bakoitzarentzat. Saio amankomunak antolatuko dira fase honen hasieran eta amaieran, enpresen artean esperientziak eta pertzepzioak partekatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundian finantzaketa lortu da proiektu hori garatzeko.

LAGUNTZEN KUDEAKETA

Ildo honen helburua garatzen ari diren hainbat arlotan enpresei beharrezko informazioa ematea da eta, bide batez, laguntzak eskuratzen laguntzea, besteak beste, nazioartekotzea, lehiakortasuna hobetzea, inbertsioa eta barne-ekintzailatza arloetako proiektuetan.

Enpresen beharrak detektatu ondoren, laguntzen kudeaketa zerbitzuaren bidez, ekintza hauek burutuko dira:

- Argitaratzen diren laguntzak identifikatzea
- Laguntzen berri ematea informazio-buletinean
- Garatzen ari diren proiektuen eta laguntzen arteko lotura.

2020an, hogeit hamar enpresari eman zaie diru-laguntzen eta programen inguruko informazioa, eta horietako 18 ETEak dira. Nabarmenezkoa da elkarteko enpresa txiki eta ertainen %42k diru laguntza desberdinei buruzko aholkularitza eskatu duela. Horietatik, honako hauek izapidetu dira:

- Hazinnova: produktu, prozesu, marketin eta antolaketan berrikuntzak dakartzaten mikroproiektuak dituzten ETEentzako programa. Proiektu honek 50 aholkularitza-ordu finantzatzeko arlo ekonomiko-finantzarioan, produkzioan, logistikan, bezeroetan, pertsonetan, merkatu berrietan, marketan eta diseinuan eta barne-prozesuetan. Bi enpresa izan dira onuradunak.
- Barneekintzaile Txekintek: enpresa-sarea dibertsifikatzen laguntzen duten enpresa-proiektu berriei laguntzea. Bi enpresak eskatu dute diru-laguntza, eta guztira 85.000€ lortu dira proiektu hauetarako.
- Zabaldur: gutxi nazioartekotutako enpresei atzerrian duten presentzia handitzen laguntzea eta nazioartekotze-prozesuan garapen jasagarria sustatzea du helburu. Enpresa batek 14.775€ lortu ditu.
- Renove Makineria: enpresa batek eskabide bat aurkeztu du programa honetan, makina berriak erosteko, eta diru-laguntza lortu du.
- Gizarte-ekonomia: enpresetan bazkide berriak sartzea errazten duen diru-laguntza da. Enpresa bati lagundu zaio, eta ebatzteke dago.
- Zibersegurtasuna: enpresa bati laguntza eman zaio zibersegurtasunerako diru-laguntza bat eskatzeko, eta 4.584€ lortu ditu.
- Leader: enpresa bati lagundu zaio inbertsiorako laguntza hau eskatzen, eta oraindik ebatzi gabe dago.
- Eraginkortasun energetikoa: enpresa bati lagundu zaio eraginkortasun energetikorako diru-laguntza bat eskatzen, eta ebatzteke dago.
- Telelana: diru-laguntza hau eskatzen lagundu zaio enpresa bati, enpresetan telelana errazteko, eta, azkenean, ezezko ebazpena eman da, eskaerak iritsi diren hurrenkeran onartu direlako, eta aurkeztutako eskaeren kopurua handia zenez, lehen egunean errekursoak agortu egin zirelako.

Zenbait ebazpenen faltan, eta enpresek emandako aholkularitzaren bidez lortutako zenbatekoa beti eskura ez dugula kontuan hartuta, baieztatu daiteke elkarteko enpresek 100.000 € baino gehiago lortu dituztela diru-laguntzetan, zerbitzu honen bidez.

Aldi berean, Goierri Valleyk garatu beharreko proiektuen diru-laguntzak kudeatu dira. Elkarreak 160.000€ baino gehiago kudeatu ditu 2020an gauzatutako proiektuen bidez. Hona hemen proiektu horiek:

- Pertsonak (GFA): Ilusioa ezartzen. 2019an eskatutako diru-laguntza.
- Enpresen lehiakortasuna (GFA): Lehiatuz: 4.0 industria eta 5.0 industria. 2019an eskatutako diru-laguntza.
- Eskualdeko lehiakortasuna (GFA): VALUE SHARE (diru-laguntza hori Goiekiren bidez lortu da). 2019an eskatutako diru-laguntza.
- Nazioartekotzea (Eusko Jaurlaritza): Elkartu

Era berean, ekitaldi honetan hiru proiektu aurkeztu dira 2021ean gauzatzeko. Proiektu horiek 225.000€-tik gorako balioa dute, eta ebatzteke daude:

- Pertsonak (GFA): Eraldatuz
- Enpresen lehiakortasuna (GFA): Digitalizazioa
- Enpresen lehiakortasuna (GFA): Smart Mobility
- Eskualdeko lehiakortasuna (GFA): Berrabiarazi, enpresen egoeraren diagnostikoak.

Laguntzen kudeaketaren esparruan, diru-laguntzen kudeaketari buruzko solasaldi interesgarri bat antolatu da, uztailaren 7an. Goiekik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Calderería Aitzgorrik eta CEGik hartu dute parte.

Solasaldi horretan 19 enpresatako 19 pertsonak parte hartu dute, eta honako balorazio hauek egin dira:

Balorazio orokorra	Iraupena	Ordutegia	Edukia	Aplikagarritasuna	Irisgarritasuna
7,9	7,7	7,9	8,1	7,2	8,8

GUNE INDUSTRIALEN KUDEAKETA

Elkarteko enpresen artean sortutako lurzoru-beharrei erantzuteko, GEIS tresna eguneratuta mantendu da. Ildo horretan, SPRILUREkin lankidetzan aritu gara, murgilduta dagoen Lazkaoko Kanpandegi Industria Gune berria sustatzeko prozesuan enpresen beharrak identifikatzeko.

2020ko ekitaldian elkarteko enpresen kontsulta bakarra jaso da. Eta, errealitate horren aurrean, tresna ezagutaraztea eta haren erabilera sustatzea komenigarri ikusten da.

FORMAZIOA

Etengabeko prestakuntza estrategikoa da enpresentzat, eta urte hasieran enpresentzat mini MBA bat antolatzeko asmoa zegoen eta lanean ari baginen ere, proposamen hori ikusita ETEen errealitatetik urruti dagoela iritzita, berriz aztertu da, prestakuntza-eskaintza enpresa ETEen beharretara egokitzeko.

Gaia sakontzeko, ETEen prestakuntza-beharrak aztertu dira galdetegi baten bidez, eta honako ondorio hauek atera ahal izan dira:

Enpresek honako esparru hauek lehenetsi dituzte:

- Kudeaketa orokorra
- Merkataritza-eremua
- Marketina
- Finantzak eta kudeaketa.

Gainera, enpresek prestakuntza jasotzeko interesa duten alderdi espezifikoak identifikatu dira.

Enpresen erantzunak jaso ondoren, lehenengo elkarrizketak egin dira Goierri Eskolarekin, prestakuntza hori bideratzeko eta enpresei prestakuntza-saio zehatzak eta praktikoak emateko, datozen urteetara begira.

INBERTSOREEN MAHAIA:

Elkarteko enpresen proiektuen inbertsioetarako bidea irekitzea helburu duen proiektu hau ez da gauzatu, urte hasierako aurreikuspenak aldatu direlako.

GIDA INDUSTRIALA TEKNOLOGIEKIN:

Gida honen helburua enpresen gaitasunak ezagutzera ematea da. Horretarako, 2020ko ekitaldian, 29 enpresaren datuak jaso dira, eta web-orria garatzen laguntzen digun enpresarekin lanean ari gara datuak pasatzeko.

BALIO ERANTSIZKO BESTELAKO ZERBITZUAK:

Zerbitzu hau enpresa ugari biltzen dituen elkarte izatearekin lotuta dago. Bidaia-zerbitzuak, finantza-erakundeekiko harremanak eta hitzarmenak, Hizkuntza Eskola Ofiziala, besteak beste.

2020an, atal honetan enpresek erabili duten zerbitzu bakarra egon da: NBF aretoen erabilera. Guztira 16 enpresak erabili dituzte areto horiek eta 100 erreserba egin dira guztira.

BESTEAK:

Hainbat pertsona eta eragile harremanetan jartzen dira elkartearekin, enpresa ugarirengana iristeko bide gisa ikusten gaituztelako. Zenbait proposamen interesgarri jasotzen direla iritzita, bi ekintza-mota aktibatuko dira:

Intereseko zerbitzuen aurkezpenak

Interesekoak gerta daitezkeen zerbitzuak enpresetara gerturatzeko aburuz, intereseko zerbitzuen aurkezpen gosariak antolatu dira. Bertan Goierri Valley-tik kanpoko hiru enpresari eskaintzen dituzten zerbitzuak aurkezteko aukera ematen zaie. Horretarako bete beharreko baldintzak honako hauek dira: elkartean lehiakiderik ez izatea, batetik, eta balio erantsi diferentziala eskaintzea, bestetik. Hauek interesekoak diren proposamenak ezagutu ahala antolatu dira.

Lehenengo saioa otsailak 12an ospatu zen Zitu, Ziur eta Oihana Orejaren eskutik. Bertan 7 enpresatako 8 pertsonak hartu zuten parte.

Hona hemen lehenengo saioaren balorazioak:

Balorazio orokorra	Lekua	Ordutegia	Edukia	Hizlariak	Aplikagarritasuna
8,3	8,9	8,0	8,3	8,6	7,4

Curriculum-ak

Lan bila dabiltzan hainbat pertsonak Curriculum Vitae-ak bidali dituzte elkartera. Enpresak talentu bila ari direla kontuan hartuta, jasotako profilen berri eman zaie enpresei, eta urtebeteko epean enpresen eskura egongo dira CV hauek.

Ekitaldi honetan 25 curriculum jaso dira guztira eta enpresen eskura jarri dira intraneten. Aipatzekoak dira CVak bidali dituzten pertsonen profil orokorrak:

- ADE
- Administrazioa
- Automatizazio eta kontrol ingeniarietza
- Produkzio mekanikoa
- Elektrizitatea eta elektronika
- Eraikuntza metalikoak
- Informatika
- Ingeniaritza Mekanikoa
- Ingeniaritza Kimikoa
- Ingeniaritza Industrial
- Ingurumen Ingeniaritza
- Ingurumen Kudeaketa
- Mekatronika
- Nazioartekotzea
- Psikologia eta coaching-a
- Soldadura eta mantenua
- Zuzenbidea

EKINTZAILETZA

AURKIBIDEA

1.	EKINTZAILETZA PROGRAMA ZERBITZUA.....	36
1.1.	INFORMAZIOA	36
1.2.	KULTURA EKINTZAILEA.....	37
1.3.	AHOLKULARITZA.....	38
1.4.	FORMAKUNTZA.....	41
2.	ENPRESA GUNEAK	42
3.	ENPRESA EKIMEN BERRIEN LEHIAKETA.....	45
4.	HEZ-IN EREDUA	46
5.	BESTEAK.....	47
5.1.	DIRULAGUNTZA.....	47
5.2.	FINANTZIAZIOA	47
5.3.	COVID-19.....	48
6.	GOILAN GUNEA.....	¡Error! Marcador no definido.
6.1.	PROIEKTUAK	¡Error! Marcador no definido.
6.1.1.	GIDA INDUSTRIALA ETA GEIS PLATAFORMA	¡Error! Marcador no definido.
6.1.2.	SMART STRATEGIES.....	¡Error! Marcador no definido.
6.1.3.	ADIMEN LEHIAKORRA.....	¡Error! Marcador no definido.
6.1.4.	NBF ERAIKINA, GOILAN GUNEA.....	¡Error! Marcador no definido.
6.1.5.	GOILANEN BISTARATZEA	¡Error! Marcador no definido.

Goiekin 25 urte daramatzagu negozio-ideia bat duten ekintzaile askorekin lanean, eta beren enpresa-proiektua gauzatzen laguntzen diegu. Proiektuaren garapen-fase guztietan eskaintzen diegu laguntza eta aholkularitza.

Goierriin, industria ahalmen handiko ingurunea izanik, ekimen berriak, berritzaileak eta balio erantsi handikoak motibatu eta bultzatzen ditugu. Enpresa-sarearen etorkizuneko jasagarritasuna lortzeko haziak landatzen ari gara.

Ondorengo orrialdeetan 2020 urtean zehar burutu ditugun ekintza eta jardueren berri emango dugu:

1. EKINTZAIETZA PROGRAMA ZERBITZUA

1.1. INFORMAZIOA


Atal honen helburua eta zeregin nagusia negozio-ideia bat landu eta garatu nahi duen pertsona edo enpresari laguntzea da. Horretarako, eta banakako elkarriketa baten bitartez, pertsonak edo enpresak duen negozio-ideiaren berri ematen du eta honen ondoren, eta dituen beharren arabera, jorratu beharreko pausuak zeintzuk diren azaltzen zaizkio. Enpresa-proiektua garatzeko ematen edo errazten den informazioa hainbat motakoa da; zuzenbideko gaiak, legedia, finantzazioa, diru-laguntzak, kokapena, etab.

2020an 71 pertsona izan ziren informazioa eta aholkularitza negozio-ideia bat martxan jartzeko helburuarekin. Azken hiru urteetako joera bera jarraituz, pertsona hauetatik %60a emakumezkoak izan dira eta %40a gizonezkoak. Pertsonen %49a langabezian zeuden, %43a lanean eta %7a jada autonomoetan altan emanda zeuden.


2020 urtea pandemia urtea izan denik kontuan hartuta, datuak 2020ko martxoan aurreikusten zirenak baino hobekiagoak izan dira. Nahiz eta hasieran geldialdi bat izan, urtean zehar sustatzaile berriak gerturatu jarraitu dute ekintzailetza zerbitzutik, izan ere, apirilko hilabetean izan da bakarrik sustatzaile berririk gerturatu ez dena. Beraz, datu hau oso positiboa da eta goraipatzekoa da bizi izan dugun urte gogorarekin eskualdean ditugun ekintzaileak.

Jarraian, eta 2020ko eskualdeko sustatzaileen profila hobeto ezagutzeko helburuarekin, hainbat datu partekatuko ditugu:

- ADIN TARTEA



- **IKASKETA MAILA**



1.2. KULTURA EKINTZAILEA

Atal honen helburua eskualdeko hainbat ikastetxeetan kultura ekintzailea sustatzea eta sentsibilizazio jardunaldia egitea da. Azken urteetan proiektu ezberdinen bitartez parte hartzen ari diren ikastetxeak Oianguren Institutua, Jakintza Ikastola, La Salle eta Goierri Eskola dira.

2020 urtea ere atal honi dagokionez egokitu egin behar izan gara eta aurrera eramatea lortu den ekintza bakarra Goierri Eskolarekin izan da. Honen arrazoia, batez ere, burutzen diren ekintzak ikasturte naturala hartzen delako izan da, hau da, 2020an burutu diren ekintzak, alde batetik, 2019ko irailen abian jarritakoak izan dira eta, beste alde batetik, 2020ko irailean abian jarritakoak 2021an amaituko direlako.

Beraz, Goierri Eskolako Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako Zikloko ikasleekin burutu den ekintza, enpresa errealetan identifikatutako behar zehatz baten bideragarritasun plana lantzea izan da.

Alde batetik, 2019-2020 ikasturtean abian jarritako proiektuak egongo lirateke. Kasu honetan 5 enpresa proiektu landu dira: CEGi, Geltoki, Geltoki-Candy Bar, Goieki eta HOGEL. Beste alde batetik, 2020-2021 ikasturteko proiektuak egongo lirateke eta kasu honetan 2020ko irailen lantzen hasi ziren enpresa proiektuak honako hauek dira: Baserri, Lortek, Fundalum, Goierri Eskola, Orkli eta Tapia.

Goierri Eskolarekin burutzen den ekimen hau Goierri Eskola, Lortek Zentro Teknologikoa eta Goiekiko kolaborazioari esker ematen da. Ikasleekin zeharkako gaitasunak lantzeko proiektu esanguratsua eta arrakastatsua da eta behin baino gehiagotan praktika onak bezala helarazi da gune ezberdinetan.

1.3. AHOLKULARITZA

2020an Goiekiko ekintzailletza zerbitzuetan parte hartu duten pertsona guztietatik guztira **41** negozio ezberdinen **bideragarritasun planak** lantzen lagundu eta aholkatu dira. Proiektu guzti hauetatik abian eta **martxan jarri diren enpresak 24** izan dira eta guztira **34 lanpostu** sortu dituzte.

Aipatu behar da, 24 enpresa hauetatik, 4 enpresen eraketa 2021 urtean zehar egingo dutela. Egoeragatik gizarte segurantzaren eta foru ogasunean alta 2021ean emango dute.


Jarraian, martxan jarri diren enpresa hauen daturik azpimarragarrienak azalduko ditugu:



Andoain eta Abaltzisketako kasuak Goierriin bizi diren pertsonen buruzkoak dira, eta eskualde bakoitzeko kontaktua eman bazitzairen ere, Goiekiko bideragarritasun-plana lantzea erabaki zuten.

Ondorengo grafikoan, azkeneko urte hauetan izandako kontsulta kopurua, landutako bideragarritasun planak eta martxan jarritako enpresen bilakaera jasotzen da:

KONTZEPTUA	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
<i>Kontsulta kopurua</i>	135	113	104	121	153	108	114	93	86	87	71
<i>Bideragarritasun planak</i>	48	39	27	34	56	24	25	40	49	49	41
<i>Sortutako enpresak</i>	35	25	16	28	30	18	17	36	33	34	24



Grafiko honetan ikusi dezakegun bezala, eta azken urteetan ikusi dugun joera kontuan izanda, kontsulta kopurua bilakaera bera izaten jarraitu du, hau da, urtetik urtera murrizten joan dira, baina jarrera aldatuta bat nabaritu da gerturatzen diren pertsonen artean. Izan ere, aurreko urteetan lehen kontsulta burutzea gerturatzen zirenak, ez ziren negozio ideia argi batekin etortzen, ezta negozio ideiatik apustu garbi bat egiteko jarrera azaltzen. Aldiz, azken 3 urteetan, 2017tik nahiz eta kontsulta burutzea iritsi den pertsona kopurua jaitsi, gehiago izan dira negozio ideia definitu batekin etorri direnak eta lanpostu finko bat eduki arren, hura alde batera uzteko apustua egin dutenak, beraien ideia negozioa martxan jarritz.

2016 urtetik aurrera 2009-2010 urteetan bizi izandako krisi finantzarioaren sendotzea islatzen hasi zen eta egoera hori burututako bideragarritasun planetan eta sortutako enpresen kopuruan adierazten zen.

2020 urtearen hasiera ere oso ona izan zen, baina martxoaren 14an indarrean sartu zen alarma egoerak eragin zuzena izan du ekintzaileengan. Ziurgabetasuna eta egoera hau zenbat luzatuko den eragin zuzena izan du proiektuetan.

Jarraian, eta datu orokor gisa, datu esanguratsuenen berri ematen dugu:

SORTUTAKO LANPOSTUAK 34	INBERTSIOAK 374.802€
BALIABIDE PROPIOAK 145.652€	FINANTZIAZIOA 232.200€

1.4. FORMAKUNTZA

2020 urtea formakuntza saio ezberdinez antolatua hasi genuen. Hauek Ekintzaile eta Mikroenpresei zuzenduak ziren. Urte hasieran itxi genuen planifikazioa jarraituz, 2 saio egiteko aukera eduki genuen pandemia egoera iritsi aurretik. Izan ere, urteko bigarren hiruhilekoan antolatuta genituen saioak bertan behera utzi beharra izan genuen.

Udara ondoren, berriz tailerren dinamika aktibatu genuen, saio presentzialak izan ziren, aforoa beti ongi neurtuz, baita segurtasun neurriak betearaziz.

FORMAKUNTZA PLANA 2020

URTARRILA	OTSAIA	MARTXOA
	Taller empresa ágil en movimiento 6 empresa	EMPRENDER: ¿una posibilidad? EKINTZAILETZA: aukera bat? 7 ekintzaile
APIRILA Gestión optimizada para una empresa eficiente en formato digital.	MAIATZA Wordpress Gestión de Redes Sociales Creación de tiendas online Fotografía Digital	EKAINA Ciberseguridad
UZTAILA Promoción activa y presencia eficiente en Internet	ABUZTUA	IRAILA EMPRENDER: ¿una posibilidad? EKINTZAILETZA: aukera bat? 4 ekintzaile
URRIA Dispositivos móviles. 5 empresa	AZAROA Promoción activa y presencia eficiente en Internet 6 empresa	ABENDUA Gestión optimizada para una empresa eficiente en formato digital. 3 empresa

Ondorioz, 2020 urtean zehar Sustatzaile eta Ekintzaileei zuzenduta eskaini diren kurtso edo aholkularitzei dagokienez, 2 izan dira.

Iragest SLren eskutik, azken urteetan bezala, ekintzailetzaren inguruan ezagutu beharrekoak eta hasierako tramiteak argitu ditu. Baita behin enpresa sortu berriari ahaztu ez daitezkeen kontuez hitz egiten duena ere.

Tandem Komunikaziokoekin lantzen diren saioetan, Irudi korporatiboa zaintzearen garrantzia azaltzen da eta hauek negozioa komunikatzeko orduan duten pisua edo eragina.

SPRIko Implantalarri programa bitartez 4 saio kudeatu dira. 3-4 orduko tailerrak izaten diren gaian jakituna den monitore batekin. Beti bezala harrera oso positiboa izan dute eta hurrengo urtean tailer hauekin jarraitzeko asmoa dago.

2. ENPRESA GUNEAK

Goiekin enpresa gune ezberdinak eskaintzen ditugu enpresa ekimen berriei behin behineko kokapena emateko. Guztiek helburu bera dute, hau da, enpresa sortu eta kontsolidatu arteko epe horretan, ahalik eta laguntza gehien izatea, horretarako hainbat zerbitzu eta ekintza eskaintzen dira. Gune bakoitzak ekimen mota ezberdinak jasotzen ditu.

2020an kudeatu diren enpresa guneak hiru izan dira:

NBF GUNEA

Goierriko Berrikuntza Gunean kokatzen den enpresa gunea da. Bertan, balio erantsiko edo eta teknologikoak diren enpresak kokatzeko aukera dute. Enpresa gunea 4 laborategi, 10 bulego eta espazio amankomunez osatua dago.




2020 urtean kokaturik egon diren enpresak honako hauek izan dira:



MAIUTZ GUNEA

Ordiziako industria gunean kokatzen den enpresa gunea da. Bertan, energia eta telekomunikazio gaiekin lotutako enpresak kokatzen dira. Guztira 7 bulego eta espazio amankomunak daude.



2020 urtean kokaturik egon diren enpresak honako hauek izan dira:



ANEZKA GUNEA

Beasaingo Udalaren jabetza den enpresa gunea Beasaingo kale nagusian kokatzen da eta kudeaketa Goiekik darama. Kasu honetan, enpresa gunea 4 bulegoz eta bilera gela batez osatua dago eta bertan kokatzen diren enpresak zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak dira, non herritarrengandik hurbil egoteko aukera eskaintzen dute.



2020 urtean kokaturik egon diren enpresak honako hauek izan dira:



3. ENPRESA EKIMEN BERRIEN LEHIAKETA



Enpresa ekimen berrien 23. ekitaldia Covid-19aren eraginagatik bertan behera gelditu zen urtero antolatzen zen formatua.

Eskualdeko errealitatea zein den kontuan izanda eta Covid-19aren pandemiak enpresa ekimen berrietan sortu dituen kalteak ikusi ondoren, lehiaketaren 23. ekitaldiari beste norabide bat eman behar izan zaio.

Eszenatoki berri honen aurrean eta egoera ezberdinak baloratu ondoren, era batea edo bestea, 23. ekitaldi honetara enpresek egindako ekarpenak, ezohiko laguntza baten bitartez, enpresa guneetan kokatzen diren enpresei zuzentzea erabaki zan, euren jarduera eteteak suposatzen dien galerei aurre egin ahal izateko eta enpresa hauen biziraupena bermatzeko.

23. lehiaketako sariak (11.200€) beraz, Inkubategian kokatzen diren 11 enpresen artean banatu dira, bakoitzaren egoera partikularra aztertu eta beraien jarduera etenda zutela ziurtatu ondoren.

4. HEZ-IN EREDUA

HEZ-IN harremantze eredu berri honek, lankidetzan, Gipuzkoako erronketako erdigunean txertatzen da, prestakuntza eskaintza enpresen beharretara gerturatzea eta gazteen orientazio profesionala hobetzea hain zuzen ere.

GOIERRI, UROLA GARAIA eta DEBAGOIENA eskualdeen arteko hausnarketa eta lankidetzaren ondorio gisa aurkeztu da eta eskualdeetako erakunde eta eragile ezberdinen partehartzearekin garatutako proiektua da.

Etorkizunean eragile ekonomiko izango diren pertsonen zeharkako konpetentzia indartu beharra dagoenaren diagnostik abiatuta eta hiru eskualdeek estrategikotzat duten gaia izanik, Hezkuntza Sistema, Enpresa/Industria ehunaren eta Garapen Agentzien artean gobernantza eredu berri batean oinarritutako proiektua proposatu eta garatu dugu, gizartearen aldaketa sozio-kulturalak eragin dituen eta eragingo dituen beharrei (konpetentzia berriak) modu praktikoan erantzutera bideratu dena.

Pertsonen gaitasunen garapenean jarri da fokoa, gaur egun ikasle diren eta etorkizunean enpresan arituko diren horien gaitasunetan alegia. Eskualdeetako lurralde antolamendu, gaitasun eta baldintzak kontutan izanik, hezkuntza eta industria gerturatzeko eta harremantzeko lanketa egin da, aldi berean, azken hauen beharrak hezkuntza sisteman txertatzen joateko pausuak emanez.

Proiektu horri esker, Gipuzkoako beste esperientzia batzuk ezagutu eta partekatu ahal izan dira, zehazki Iraurgi Berritzen, Debegesa eta Urola Kostako Garapen Agentziekin. Eragile bakoitzak hainbat esperientzia eta proiektu egin ditu, eta ezagutza-maila lortu du. Agentzia gehienek onartzen dute ahaleginak eta baliabideak bateratu behar direla, Gipuzkoako erronka bati erantzun hobea emateko.

2019. urtearen amaieran, aipatutako agentziak elkartzeko beharra ikusi zuten, eta Orkestraren (Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren) laguntzarekin ditugun erronkak bateratzeko eta identifikatzeko dinamika landu zen. Orain arte, hasitako foroari izena eman zaio, HES Hezkuntza Eskualdea Sarea, eta ezarritako helburuetako bat da hezkuntza Gipuzkoako Foru Aldundia garapen-agentziekin batera lantzen ari den gobernantza-ereduan txertatzea.

2020an foro honi jarraipena eman nahi izan zaio, baina beste behin ere Covid-19a dela eta, bereziki, hezkuntza erabat geldirik geratu zela martxoaren 14an ezinezkoa izan da talde honi jarraipena ematea.

5. BESTEAK

5.1. DIRULAGUNTZA

Ekintzailletza arlotik 2020. urtean kudeatu diren diru-laguntzak hurrengoak izan dira:

	PROGRAMA	ERAKUNDEA	KOPURUA	JASOTAKO LAGUNTZA
2020	LEADER (G1, G2, G3)	HAZI	2	37.930€
	Enpresa-jarduerak sendotzeko laguntzak	LANBIDE	9	22.500€
	Proiektua ezartzeko laguntzak	LANBIDE	7	24.500€
	Ordizia Zabalik	ORDIZIAKO UDALA	5	
	Ekintzailletzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak - EMET 2020	EUSKO JAURLARITZA	2	2.000€
	EKINTZAILE/TXEKINTEK	GFA/SPRI	2	85.000€

5.2. FINANTZIAZIOA

Atal honetan sustatzaileentzako hitzartutako maileguen kopurua aztertzen da. 2020an sustatzaileek negozio bat martxan jartzeko eskatu beharreko maileguak 7 izan dira. Joera, inbertsio txikia eskatzen duten negozioak habian jartzea da, nagusiki zerbitzutako jarduerak. Honen arrazoia egun bizitzen ari garen ezjakintasun eta errealtate aldakorra izan dira.

2020.urtean Goieki-rekin gehien lan egin duen entitate finantzarioa CaixaBank izan da. Izan ere, beraiekin hitzarmen bat sinatu da 25.000€ bitartearainoko finantziarioa eskatzea ahalbideratzen duena baldintza mesedegarrietan.

ENTITATEA	PROGRAMA	ZENBATEKOA	ESKAERA	ONARTUA
LaCaixa	MicroCredit	5.000 €	4	30.000€
Kutxabank	Elkargi bidez	100.000€	1	100.000€
Caja Rural	Inicia	5.000 €	1	5.000€
Laboral Kutxa	Gazte enpresa	80.000 €	1	80.000€

5.3. COVID-19

2020ko martxoaren 14an alarma egoera indarrean sartu zenetik hainbat ekintza eta laguntza eskaini ditugu pandemiak sortu dituen kalteak gutxitzeko asmoz.

Pandemiaren hasieratik Goierriko udal guztiekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean aritzeko helburuarekin, Goiekiko teknikarien kontaktuak luzatu ziren enpresa, merkataria, ostalari eta orokorrean autonomoei laguntzeko asmoz.

Ekintzailatza ataletik 430 enpresa txiki eta autonomoei jarri ginen harremanetan egoerak sortarazitako beharrei erantzuna emateko eta kasu bakoitzaren arabera zegozkion neurriak helarazteko.

Pandemiaren hasieratik gehien errepikatzen ziren kezka eta zailtasunak ondorengo gaietan laburbilduko genituzke:

- Alarma egoera indarrean sartu zenetik negozioak derrigorrez itxi beharra eta egoera hau zenbat denboraz luzatu behar zenaren ziurgabetasuna.
- Langileak zituzten kasuetan gehienek ERTEak aplikatu behar izan dituzte.
- Autonomoen kasuan gehienek ezohiko prestazioa eskatu dute.
- Sektorearen arabera ziurgabetasun handia eta erantzunak airean.
- Finantzazioa
- Dirulaguntzak

Maiatzean deseskala fasea hasi zenean berriro ere deiak eta jarraipenak burutzen dira egoera edo "normaltasun" berrira nola egokitzen ari diren ezagutzeko eta laguntza behar izanez gero eskaintzeko.

Covid-19ak 2020an sortarazi dituen kalte eta oztopoei aurre egiteko, hainbat neurri eta proposamen abian jarri dira. Jarraian, martxan jarritako hainbat ekintza azalduko dira:

- **BERRABIARAZI-EKINTZAILATZA.** Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin BERRABIARAZI lan tresna ipini dute Gipuzkoako Garapen Agentzien eskuetan enpresen egungo eta etorkizuneko egoeren inguruan hausnarketa egin ahal izateko. Galdetegi batzuei esker enpresetan diagnosiak egiten hasi gara enpresen abiapuntua eta etorkizunean aurrera eraman nahi dituzten ekintzak eta erronkak ezagutzeko. Enpresa ekimen berrien arlotik 2015-2019 urteetan zehar sortutako enpresei diagnosiak egitea erabaki da. Guztira, 150 enpresei burutuko zaie diagnosa.



- Aurreko atal batean azaldu den bezala, Goiekik kudeatzen dituen 3 enpresa guneko enpresei 2 hilabetetako errenta gastua ordaintzeko laguntza eman zaie. Laguntza honen zenbatekoa guztira 11.200€ izan dira.
- **Goierriko azoka.** Goierriko merkatari, ostalaritza, ekoizleak eta zerbitzuetako enpresak plataforma baten bitartez, erakusleho bat izatea ahalbidetu nahi da, non enpresa ezberdinen partehartzearekin Goierriko negozio txikiak ezagutarazi eta bezeroei gerturatu nahi da.
- **COVID-19 laguntzak.** Pandemian, eta sektore ahulenetan eragindako kalteak arintzeko, Goiekik enpresei informazioa, aholkularitza eta kudeaketa eskaini dizkie 2020ko hilabeteetan argitaratu diren aparteko laguntzei buruz. Laguntza esanguratsuenak, eskualdeko udalek argitaratutakoez gain, Lanbideren bere kontura diharduten langileentzako aparteko laguntzak, Eusko Jaurlaritzak turismoaren sektoreari eta merkataritzaren sektoreari ematen dizkien laguntzak izan dira. Guztira 68 enpresarekin jarri gara harremanetan, informazioa helarazteko eta berri emateko.



6. GOILAN GUNEA

Memoriako atal honek, Goilan Gunean 2020.urtean burutu diren lanak jasotzen ditu. Dokumentuaren helburua Fundazioaren eta Goiekiren arteko hitzarmenaren lekuko izatea da, egindakoen nondik norakoak eta lortutako emaitzak azalduz.

Goilan Gunea 2015. urtean sortu zen, Goieki eta Goilan Fundazioaren eskutik. Bi erakundeen arteko kolaborazio honek bailararako hobekuntzak ekartzea du helburu, arlo industrial zein sozialean.

Goilan Fundazioa Goierri zonaldeko zortzi kooperatibak (Ampo, Ederfil-Becker, Eredu, Hertell, Kendu, Logos, Orkli eta Panelfisa) osatzen dute, helburua kooperatibismoa zabaltzea da bailaran, ikuspegi ireki batetik. Hiru ekintza lerro ditu martxan, formazioa, berrikuntza, eta promozioa. Formazioari dagokionez ikaskuntza zentroak berritzera bideratzen dira errektursoak, goi mailako ikaskuntzak bultzatzea du helburu. Berrikuntza aldetik, ikerkuntza bultzatzea da helburua, zentro teknologikoen elkarlana sustatuz. Azkenik promozioaren alderditik proiektuen garapena sustatzea da helburua, fundazioaren xedearekin lerrokatzen dena.

Goiekiri dagokionez, Goilaneekin elkarlanean aritzeak besteak beste, bailararen egoera industrial eta soziala hobetzea dakarkio, hau izanik agentziaren helburuetako bat.

Urtean zehar hainbat ekintza sortu dira gunean, gehien bat berrikuntzarekin lotuak. Hala eta guztiz ere bestelako hainbat lan egin dira Goierriko industria bultzatzeko. Hauek ere memoria honetan jasotzen dira.

6.1. PROIEKTUAK

6.1.1. GOIERRIKO BERRIKUNTZA MAILA

Goiekik, Innobasque erakundearekin elkarlanean, Goierriko industriaren berrikuntza maila hobetzeko helburuarekin jarri zuen proiektu hau martxan 2019ko urrian. Goierriko ehun industrialaren tamaina kontuan izanik eta azken urteetan ematen ari den eraldaketak ikusiz, bertako enpresen egoera ezagutzea ezinbestekoa ikusten da. Proiektuaren helburua ez da solik berrikuntzak eta praktika onak identifikatzea, erakundeen ahulguneak topatu eta soluzioak eskuratuko zaizkie parte hartzen duten enpresei. Innobasque modeloak galdera konkretu batzuen bidez enpresaren egoera ezagutzera ematen du. Aplikazio baten bidez txosten bat gauzatzen da hainbat adierazlearen arabera. Goiekiren lana enpresen egoera identifikatzea eta txosten zehatz bat idaztea litzateke kasu bakoitzerako, hau enpresari aurkeztu zaiolarik.

Proiektu honi Martxoan eman zitzaion amaiera, pandemiaren eraginez enpresek izaten ari ziren arazoak direla eta. Honen ordez Berrabiarazi proiektua jarri zen martxan. 2020eko urria eta 2021 apirila bitartean Goierriko industriaren egoera diagnostikatu nahi da, enpresa industrial bakoitzarekin egonez, egoera hobetzeko hainbat lan lerro proposatuko dira honen ondorioz.

6.1.2. GIDA INDUSTRIALA ETA GEIS PLATAFORMA

Goierriko gida industrial Goiekik duen datu base bat da zeinetan enpresen oinarritzko informazioa agertzen den. Dokuentu honen azken bertsioa 2007 urtean publikatu zen, nahiz eta eguneratzen joan denbora honetan zehar.

Edizio berri bat argitaratzeko erabakia hartu eta lan honen bai datubasea eta baita GEIS plataforma eguneratzeko balioizan du. Enpresen posizionamendua hobetzeko asmoz, informazio guztia GEIS plataforma digitalera pasatu da. 2020 urtean zehar Goilan Gunearen ardura izan da Gida Industrial eguneratua mantentzea.

6.1.3. ADIMEN LEHIAKORRA

Goilan Gunetik zaintza sistema bat jarri da martxan Agite plataforma erabiliz. Guneko proiektu nagusia Berrikuntza Maila proiektua denez, honen inguruan montatu da zaintza sistema. Agite plataformak eskaintzen duen sistemak informazio iturriak zehaztea eskatzen du, behin identifikatuak filtroak ipintzen dira informazio baliagarria bakarrik geratu dadin.

Alertas ▼ Noticias RSS

Noticias RSS

Traducir Todas

Noticia	Fecha
China June auto sales down 9.8%, marks 12th month of decline: industry data	10/07/2019
Emissions rules and electric shift to spur car engines M&A	09/07/2019
Delhi: 60 vehicles added to fire department fleet	09/07/2019
Budget push could realise B'luru's dream to be global e-mobility hub	09/07/2019
Consejos para conducir un coche eléctrico	08/07/2019
J-K okays scheme to replace 500 old diesel vehicles operated by pvt transporters	07/07/2019
Budget gives clear signals on promoting electric vehicles: Niti Aayog VC Rajiv Kumar	07/07/2019
Budget 2019-20 provides a big thrust on the infrastructure industry: Sanjeev Aggarwal	06/07/2019
VW, Ford reach outline agreement to share electric, autonomous tech: source	06/07/2019

Filtros:

- Todos los elementos
- Elementos no leídos
- Elementos destacados
- Título y cuerpo

Carpets y fuentes RSS

- Industria (149)
- Fuentes RSS sin carpeta

6.1.4. GOILAN KOOPWORKING ESPAZIOA

Goierriin 2005.urtean gauzatu zen plan estrategikoaren ondorioz eta eskualdean balio erantsi altua duten ekimen berriak bultzatzeko asmoz, orain dela urte batzuk jarri zen abian Negozio Berrien Fabrika egitasmoa. NBF eraikinean Goilan Koopworking espazioa deritzon bulegoa hornitu da. Goilanekeo Eredu enpresak emandako altzariak ipini dira. Espazio honetan bailarako kooperatibentzako elkarlan espazio sortu nahi da, balio erantsia ekarriko duten proiektuak ekarriko dituelarik. Pandemiaren ondorioz proiektua martxoan geldiarazi zen, uda ostean martxan jarri zen berrirori ere. 2021.urtean bulegoan 4 kooperatiba lanean izateko helburua bete nahi da.



6.1.5. GOILANEN BISTARATZEA

6.1.5.1. Feriak eta jardunaldiak

2020ean feria eta jardunaldi asko bertan behera geratu dira. Urte hasieran FICOBAn ospatutako GO MOBILITY mugikortasun elektriko feria ospatu zen eta Goilan Gunetik bertara gerturatu ginen. 2018-2019 urteetan GoilaneK Mugikortasun proiektua martxan jarri zuen eta honen zaintza egiten jarraitzen denez, sektorearen inguruko teknologia berriak eta tendentziak aztertu ziren bertan.

6.1.5.2. Sare sozialak

Gaur egun erakunde baten kanpo itxura lantzeko erraminta ugari daude, horietako bat sare sozialak dira. GoilaneK sare sozialetan duen presentzia hobetearren, LinkedIn eta Twitter kontuak ireki dira Fundazioaren izenean. Bertan Goilanen irudia landu da eta ospatutako jardunaldien inguruan informazioa eman da. Goierriko erakunde industrialak izan dira helburua, hauek Goilanen berri izan dezaten.

GOITUR

AURKIBIDEA

1.	LEHIAKORTASUNA.....	55
1.1.	AHOLKULARITZA.....	55
1.2.	KALITATEA ETA IRISGARRITASUNA	55
1.3.	KANPOTARREN BISITAK ETA GOIERRIKO ESPERIENTZIAREN ZABALKUNDEA	55
1.4.	TURISMO MAHAIK, BASQUETOURL ETA EUROPA	56
2.	PRODUKTU – ZERBITZUAK.....	56
2.1.	MICE	56
2.2.	GASTRONOMIA.....	56
2.3.	NATURA.....	57
2.4.	KULTURA, TURISMO INDUSTRIALA ETA SANTIAGO BIDEA.....	57
3.	PROMOZIOA ETA KOMERTZIALIZAZIOA	58
3.1.	ARGITALPENAK	58
3.2.	PUBLIZITATEA ETA BRANDING-A.....	58
3.3.	TURISMOKO AZOKAK	59
3.4.	GOIERRI DIGITALA	59
3.5.	KOMERTZIALIZAZIOA.....	59
4.	OHARRA.....	59

1. LEHIAKORTASUNA

1.1. AHOLKULARITZA

Euskadiko, Gipuzkoako eta Goierriko marketing turistikorako planen ildotik produktu turistiko berriak egituratu dira eta turismoa alorreko prentsaurrekoak egin dira sentsibilizazio turistikoaren baitan; Goitur-en barruan dauden bazkide eta udalerriekin harremanetan egon gara, baita Estatuko Turismo Idazkaritzarekin ere, eta Goierriko negozio edo ostatu berriak ireki nahi zituztenei gure aholkularitza eskaini diegu (aurten asko igo dira mota hauetako kontsultak). Euskadiko Ekoturismoko Mahaiaren partaide bezala Gipuzkoako eskualdeen izenean, orain arte jorratutako bideari esker, ekintzak garatzen hasi gara Euskadiko ekoturismoko gida berria tarteko. Udal hauteskundeak direla eta, Alkate berriekin harremanetan jarri gara Goitur-eko egitasmoa aurkeztu eta gure kontaktuak emateko helburuarekin. Azkenik, Eusko Jaurlaritzak bultzatu duen Saretour, turismorako ekimen publiko eta pribatuko sare berriaren sorreran parte hartu dugu.

1.2. KALITATEA ETA IRISGARRITASUNA

Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen SICTED programarekin jarraitu dugu 13. urtez; aurreko urteetan bezala, talde bakar honetako partaideek zegozkien formakuntza guztiak egin dituzte eta kalitaterako teknikariaren bisiten ostean, dokumentazioa prestatu eta pasa dituzte ebaluaketak; guztira, 24 enpresek parte hartu dute aurten. Kalitateaz gain, irisgarritasunaren programa jarri da martxan berriro ere: egitasmoa aurrera eraman ahal izateko guk jasotako formazioaren ondoren, eskualdeko 18 enpresa sartu dira programa berrian eta aurten formazioa jaso dute beraiek ere, datorren urtean egingo diren diagnostikoen zain. Berrikuntzaren alorrean, Tecnaliarekin elkartu gara eta "Hodeian" egitasmoaren emaitzak aztertzeaz gain, hobekuntzarako pausoak eman ditugu.

1.3. KANPOTARREN BISITAK ETA GOIERRIKO ESPERIENTZIAREN ZABALKUNDEA

Ondorengo bisita hauek jaso ditugu Goierriko: Foru Aldundiko Turismoko Diputatua eta Zuzendaria. Hainbat telebista eta irrati-taldea Goierriko esperientzia turistikoa azaldu dugu, baita BCC-k antolatzen duen Turismo Gastronomikoko Masterrean eta Euskadiko Ekoturismoko Kongresuan ere; Errumaniako Turismo Ministeritzako politikoen bisitak ere jaso ditugu Goierriko turismoa nola lantzen dugun ezagutzeko asmoarekin (taldean, Errumaniako Turismo Ministroa eta Errumaniako Bilbon duen Kotsula etorri dira). Aurten ere, Ourensen antolatu berri den Estatuko Kirol Turismoaren Lehen Kongresuan parte hartu dugu, Basque Highlands marka azaldu eta gure produktu turistikoak aurkeztu ditugularik; gauza bera egin dugu Teguisen (Lanzarote) ospatu den Nazioarteko II Kongresu Gastronolikoan: bertara gonbidatu gaituzte "Idiazabal Lurraldea" estrategia azaltzeko; nazioarteko hainbat kazetari gastronomikoekin batera parte hartu dugu.

1.4. TURISMO MAHAIAK, BASQUETOIR ETA EUROPA

Goierriko Turismo Mahaia, ekintzak eta planteamendu berriak adostu behar izan direnean bildu da. Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko Turismoko mahaien partaide bezala, turismoko mahai desberdinetan bildu gara gai desberdinak jorratzeko. Gipuzkoako turismoko mahaiaren deialdi guztietara joan gara Gipuzkoako promozio turistikorako egiten diren ekimen guztietan parte hartu dugularik: tartean, berriki sortu den Turismo Adimentsuko Batzordeko partaide ere bagara Gipuzkoako eskualde guztien ordezkari modura. Turismoko Euskal Agentziarekin elkarlanean aritu gara eta MICE, natura, touring, familia turismoa, industria turismoa eta gastronomia gaiak lantzen dituzten Plan Zuzentzaileen arduradunekin etengabeko harremanetan egon gara, baita diru laguntzak eramaten dituzten Lakua-ko arduradunekin ere. Europari dagokionez, "Your Eden Experience" lantaldean eta "Europeans Best Destinations" eta "Visit Europe" sareetan lanean jarraitu dugu. Aurtan ere, Eusko Jaurlaritzak antolatuta, Ekoturismoko bigarren Foroa ospatu da eta bertan, Goierriko eredu turistikoa nabarmendu dute.

2. PRODUKTU – ZERBITZUAK

2.1. MICE

Bileren, inzentiboen eta kongresuen planean oinarriturik, Igartzako jauregia eta egitasmo honetan sartzen diren gainontzeko ekipamendu eta hotelekin lanean jarraitu dugu; aipatutako errekurtoez gain, Goierriin egin daitezkeen esperientzia guztiak ere sartu ditugu egitasmoaren barruan. Basquetour-en eskutik, Goierriko errekurto turistikoa guztiak biltzen dituen kongresuen gida berria bera rgitaratu da, bertan gainera berrikuntza bezala eskualdeko jatetxeak sartu ditugu, eta plan honen inguruan iaz martxan jarri zen publizitate kanpaina areagotu da: aurkezpenak egin dira nazioarteko hainbat hirietan. Era berean, Goierriko enpresa haundienetara eskualdeko informazio turistikoa bidali dugu gure zerbitzu turistikoa erabiltzeko eskatuz. Foru Aldundiko MICE komisioren partaide gara eskualdeen izenean, eta deitutako bilera guztietara joan gara promozio bideak eta subentzio lerro berriak aztertzeke helburuarekin.

2.2. GASTRONOMIA

aurtan ere, bosgarren aldiz, eskualdeko sagardotegien denboraldi berria aurkezteko prentsaurreko bat antolatu dugu Izagirre anaia txirrindulariak gonbidatu bezala ekarrita. Europear Komisioko eman digun EDEN sariari esker, Espainiako Turismo Idazkaritza eta Europar Komisioko arduradunekin harremanetan egon gara, marketing alorra aztertzeke batez ere. Esperientzia turistikoei dagokionez, gastronomiarekin lotutako esperientzia berriak martxan jarri ditugu, sagardoa, txakolina eta gazta ardatz duten ekimen berriak hain zuzen ere. Ekintza esanguratsuenen artean, esan Munduko V. Turismo Gastronomikoaren Foroa etorri dela Goierriara: Goierri eskualdea izan da Kongresuko 4 irteeretako bi hartu dituen, eta gastronomiarekin loturiko produktu turistikoa bisitatu ditugu Kongresuan parte hartu duten 27 nazioetako 45 partaide, hizlari eta antolatzaileekin batera.

Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenarekin batera, eta beraiena den "Sagardo Tour" ekimenaren barruan, Goierriko irteerak adostu dira udarari begira, eta Ordizian, urrian ospatu den Gazta eta Turismoaren Kongresuko antolakuntzan parte hartu dugu. Idiazabalgo Udalak bultzaturiko

European Cheese Route sareko bileretan parte hartu dugu: aurten gainera, bultzada garrantzitsua eman zaio arlo turistikoari. Azkenik, Japonia, Europako hainbat herrialde eta Hegoamerikako sukaldari eta gastronomo desberdinak etorri direla Goierriara aipatu beharrean gaude, ICEX bezalako Erakundeen bidez.

2.3. NATURA

Hainbat ekintza burutu ditugu Goierrirentzat natura produktuak duen garrantzia ikusirik. Goierriin ospatzen diren Zegama-Aizkorri Maratoia, Zegama-Aizkorri kilometro bertikala, Ehunmilak Ultratrail, Goierriko 2 Handiak, Mari Murumendi Maratoia, Aralar eta Aizkorri-Aratz-en antolaturiko orientazioko Rogaine proba desberdinak, Ordiziako nazioarteko igeriketa txapelketa eta Euskal Herrian Field Trail probak babestu ditugu. Goierriko errekurtsio eta produktu turistiko natural guztiekin batera, natura eta familia turismoa batzen dituzten produktu turistiko berriak batu eta biltzen dituen "Basque Highlands" markari buruzko branding-a garatzen jarraitu dugu; familia eta abentura turismoari lotuta, Lizarrustiko abentura parke berria inauguratu dugu apirilean (umeentzako jokuak, tirolinak, txondorra, zubi tibetarra, via ferrata, kobazulora sarrera, etab). Trail Station proiektuarekin ere aurrera jarraitu dugu: ibilbideen seinaleztapena gainbegiratu da eta Estazioaren promozioa garatzen duen kanpaina turistikoarekin jarraitu dugu, webgunea osatu eta App-a martxan jartzeaz gain; Basque Highlands proiektuaren promozioari lotuta, Mont Blanc-eko Ultra Trailarekin batera Chamonix-en egiten den turismoko azokan egon gara Goierriko informazio turistikoarekin eta maiatzean Training Camp bat antolatu dugu Zegaman lehen aldiz Salomon-ekin batera: eliteko 32 korrikalari egon dira Goierriin hiru egunetan zehar eta bertako errekurtsio eta produktu turistiko desberdinak ezagutu dituzte.

Aurten ere, natura turismoari lotuta, Kabi agentziaren bitartez, Erresuma Batua eta Alemaniako agentzia desberdinak etorri dira Goierri ezagutzera. Hirugarren urtez jarraian, Zegama-Aizkorri maratoia eta kilometro bertikalak streaming bidez zuzenean bota dituzte: emanaldietan Goierriko publizitatea eta bideoa ere azaldu dira. Azkenik, aurten ere Mutiloa-Ormaiztegi Bide Berdearen egunaren antolaketan parte hartu dugula aipatu behar, eta bigarren aldiz, Ordizian ospatu den "Open de Euskadi"ko III. BTT saria ere babestu dugu.

2.4. KULTURA, TURISMO INDUSTRIALA ETA SANTIAGO BIDEA

Gure lana, eskualdeko museo eta gainontzeko ekipamenduak gida desberdinetan sartzeari izan da, press-trip-en bidaietan erakusteaz gain. Santiago Bideari dagokionez, bulego teknikoarekin batera lan egin dugu Bidearen inguruan sortu izan diren ekimen desberdinetan. Basquetour-en eskutik martxan jarri den turismo industrialari buruzko plan zuzentzailearen egituraren parte hartu dugu hasieratik: Goierriko kasuan, eskualdeko meatze gunek, Ormaiztegiko tren zubia eta Igartza multzoa sartzeari dira egitasmo berri honetan; egitasmo berri hau dela eta, antolaturiko jardunaldi eta bilera guztietan parte hartu dugu, industria gida berria argitaratu da eskualdeko produktu turistikoen presentziarekin, apirilean antolatu den fam-trip-ean Euskadi guztiko 32 eragile desberdinek parte hartu dute (turismo bulegoak, gida turistikoak, errezeptiboak, etab) eta Europako Ondare Industrialaren promozionatzeko ERIH Elkartearen barruan sartu ditugu gure ekipamenduak.

3. PROMOZIOA ETA KOMERTZIALIZAZIOA

3.1. ARGITALPENAK

Goierriko mapa turistikoa eta Basque Highlands mapa argitaratzeaz gain, Goierriko material turistiko berri bat diseinatu dugu baita ere. Atal honetan ere aipatu beharrean gaude Goierriko argazki album berri bat atera dugula: errekurtsu eta produktu turistiko nagusien argazki berriak lortu ditugu aurrerantzean erabili ahal izateko.

3.2. PUBLIZITATEA ETA BRANDING-A

Atal honetan egin dugun lehen gauza zera izan da: Nazioarteko eta Estatuko gida liburuetan azaltzen diren Goierri buruzko testuak aurkitu, aztertu eta aldaketak bidali dizkiegu (aditua den enpresa baten bidez egin dira kontaktuak editorial desberdinekin); bestalde eta urtero bezala, aldizkarietako, irratia, prentsako eta telebistako publizitatea landu da albiste eta erreportaien bidez, eta Goierri-trip desberdinak antolatu dira Goierri erakusteko Donostiako eta kanpoko hainbat kazetari, blogger eta errezeptiboekin (El País-eko El Viajero gehigarria 2 alditan, Go Basquing errezeptiboa, Basque Tours errezeptiboa, Gipuzkoako 55 gida turistiko eta errezeptibo, Vision aldizkaria, Salomon TV, Frantziako Wider aldizkaria, Brasilgo Adventuremagazine aldizkaria, Argentinako Factor Running aldizkaria, Erresuma Batuko run247 aldizkaria, Teledonosti, Frantziako Pyrénées Magazine aldizkaria, Suediako Svenska Dagbladet egunkaria, Alejandra Anson kazetaria, ETB-ko Gaur Egun eta Teleberri albistegiak, ETB-ko Basque Experience programa, Estatu Batuetako "The Epoch Times" egunkaria, Alemaniako Petra Sparrer kazetaria eta Norvegiako Storaas Adventure agentzia). Goierri marka turistikoa zabaltzeko antolatu ditugun ekitaldi desberdinetan, hauen artean eta garrantzitsuenak, Aste Santuko Bilboko BasqueFEST eta Arabar Errioxako azokak; udarari begira Goierriko udako agenda egituratu dugu eta honen promozioa egin dugu hainbat bitarteko erabiliz. Aquarium-arekin dugun hitzarmenari esker, Goierriko informazioa Aquarium-eko sarreran egon da eskuragai urte guztian zehar, eta museoak doan ezagutzeko txartel berezia, Donostia eta inguruko hotel, errezeptibo eta zerbitzu turistikorako enpresei eta Euskadiko turismo bulego guztiei bidali diegu diptikoarekin batera, beraien bezeroak Goierri erakartzeko orduan eskualdeko ezagutza eduki dezaten; Donostiako gida turistikoan, aurren, berriro ere Goierriko publizitatea txertatu dugu. Aurren, lehen aldiz, Zegama-Aizkorri maratoia dela eta, Salomon TV etorri da eskualdera maratoia baino lehen, eskualdeko produktu eta errekurtsu turistikorik nagusienak grabatzera, grabazio hori beraien emanaldietan ondoren bota ahal izateko. Lehen aldiz baita ere, Donostiako San Telmo museoarekin hitzartu dugu eskualdeko material turistiko guztia bertako sarreran jartzeko aukera.

Bestalde, "The Basque Route" ekimenaren barruan, Gipuzkoa barnealdeko ibilbideari dagokionez, Goierriko produktu turistikoari buruzko grabaketa bat egin da, Eusko Jaurlaritzako ekimen horren barruan Goierriren presentzia areagotzeko. Era berean, aipatu beharrean gaude, eskualdeko bi erreportai txertatu ditugula Grandes Espacios eta National Geographic aldizkarietan, eta gure Basque Highlands mapa Eusko Jaurlaritzako foiletoen artean sartzea lortu dugula: honek esan nahi du, beraiek argitaratzeaz gain hemendik aurrera, azoka guztietan eta Euskadiko turismo bulegoetan egongo dela eskuragai. Amaitzeko, esan Basque Luxury aldizkariarekin eginda bezala, Donostiako hotel guztietan banatu den Vision aldizkari berrian ere, eskualdeko erreportai bat txertatu dugula, Goierri Donostian dauden turisten artean promozionatzeko helburuarekin. Azkenik, iraila eta abendua bitartean, publizitate kanpaina bat lotu dugu Teledonostikin: aste bukaerako azokak eta ekitaldi esanguratsuenak promozionatzeko.

dira “Zatoz Goierriara” espazio berrian eta aste guztietan zehar 180 aldiz emitituko dute gure spot-a; honekin lotuta ere, “Gasteiz Hoy” plataformaren bidez udazkeneko ekintza nagusienak promozionatu ditugu Araban.

3.3. TURISMOKO AZOKAK

Turismoko azokei dagokionez, ondorengo leku hauetan egon gara Goierri bezala: Fitur, Sevatur, Navatur, Vic-eko Mercat del Ram, Basquefest, B-Travel, Expovacaciones, Seu d’Urgell, Bartzelona-ko IBTM eta Intur. Dakizuen bezala, Europa eta Iparameriketan ospatzen diren aurkezpen eta azoka garrantzitsuenetan ere Goierriko informazioa zabaldu da Basquetour eta Turespaña-ren bidez: Varsovia, Amsterdam, Oslo, Paris, Londres, Cannes, Rimini, Mosku, Utrecht, Berlin, Bruselas, Munich eta Chicago.

3.4. GOIERRI DIGITALA

Www.goierriturismo.com webgunea Wordpress-era pasa dugu, eta arkitektura eta erabilgarritasun atalak lantzeaz gain, egituraketa eta diseinu berria du; web posizionamenduari dagokionez, bisita gehien jasotzen dituzten hizkuntzen orrialdeen metadatuak hobetu ditugu. Inbound marketing deituriko estrategia berri bat jarri dugu martxan: kaptazio eta automatizazio estrategiak erabili ditugu, leads-ak hornitu ditugularik, erabiltzaileekin interakzio harremanak mantenduz; komunikazio pertsonalizatuak bidali ditugu, eta horren ondorioz, bisitarien atentzioa erakarri du eta automatizazioaren maila igotzen du.

3.5. KOMERTZIALIZAZIOA

Goierriko museoak “Donostia card” deskonturako tarjetan sartu ditugu eta Nekatur-ekin dugun promozio bateraturako hitzarmenarekin darraigu; Goierriko esperientzia turistikoak eta gure produktu nagusienak Basquetour-ek lantzen dituen produktuen barruan txertatu ditugu: gazta, produktu gastronomikoak, industria ondarea, Basque Route proiektua, Parke Naturalak eta Santiago Bidea. Donostia-San Sebastián Turismo-ren eskutik programa gastronomikoan jarraitzen dugu; Euskadiko, Estatuko eta nazioarteko hainbat errezeptibo eta bidai agentziekin lanean jarraitu dugu Goierriko eskaintza turistikoa komertzializatu dezaten eskualdeko zerbitzu turistikorako enpresen bidez pakete turistiko berriak sortuz (Ehunmilak proba ere Eroski Bidaiak-en bidez saldu da). Udarari begira, Goierriko informazio turistikoa ahal den egokien zabaldu eta eskaini nahian, Donostia eta San Sebastian Region turismo bulegoetan dauden informatzaile guztiekin bilera bat antolatu da: bertan, eskualdeko produktu turistiko guztiak aurkeztu dizkiegu.

Ildo honi jarraituz, Gipuzkoako 55 eragile turistiko desberdinei eskualdea erakustiaz gain, bertako produktu turistikoak ere aurkeztu dizkiegu: gerturatu direnen artean ostatu mota desberdinak, gida turistikoak, errezeptiboak eta bidai agentziak zeuden.

4. OHARRA.

Abenduan bidalitako informazio guztiaren artean, hilabeteroko ekintzen memoria eta prentsa dossierrak daude.

INGURUMENA

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	62
2.	HELBURUAK	62
3.	GAUZATUTAKO EKINTZAK	63
3.1.	Goierriko udalen adaptazioa jasangarritasun energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legera.	63
3.2.	Energia berriztagarriaren sorkuntza bultzatu.	66
3.2.1.	Energia eolikoaren sorkuntzaren inguruko azterketa Gipuzkoan.	66
3.2.2.	Energia fotoboltaikoaren sorkuntza Goierriko eskualdean.	67
3.3.	Etorkizuneko mugikortasun jasangarria eta elektrikoa.	68
3.3.1.	Auto eta bizikleta elektrikoak kargatzeko puntuen azterketa.	68
3.3.2.	Mugikortasun turistikoaren ereduak eta proiektu pilotuak.	70
3.4.	Ekintza planaren jarraipena eta koordinazioa	70

1. SARRERA

2015 urtean zehar Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontu parte-hartzaileen prozesua jarri zuen martxan Goierriin. Parte-hartze prozesuan zehar herritarrek plazaratu zuten energiaren aferarekiko zuten kezka. Goierritarrek argi adierazi zuten energiaren planifikazio eta kudeaketa publiko baten beharra, jasangarriagoa eta sozialagoa izango den eredu bateruntz joateko beharra.

Ondorioz, 2017 urtean zehar Gipuzkoako Foru aldundiaren diru-laguntzari esker Goierriko energia plana (2018 - 2025) garatu zen. Plan honen baitan eskualdearen diagnostikoa irudikatu zen eta hurrengo zazpi urteetarako lerro estrategikoak eta ekintza zehatzak definitu ziren eskualdeko eragile ezberdinen artean.

2020ko maiatzaren 18an Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Goierriko Ekimena S.A. garapen agentziaren artean Goierriko energia planaren III. ekintza-plana bultzatzeko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten.



1. Irudia. Goierriko energia planaren eboluzioa (2017 – 2020).

2. HELBURUAK

2020. urteko ekintza planaren helburu nagusia Goierriko energia planaren baitan zehaztutako lerro estrategiko garrantzitsuenak abian jartzea izan da. Urtearen hasieran lehenetsitako lan lerroak hurrengoak izan ziren:

1. *Eskualdeko sektore guztietan kultura energetiko berri bat ezartzea, non ardatz estrategiko nagusiak kontsumo energetiko murrizketa eta eraginkortasun energetiko hobekuntza diren.*
 - a. *Kudeaketa energetiko jasangarria administrazio publikoan.*
 - b. *Mugikortasuna.*
2. *Autohornikuntza energetikoa indartzea goierriko sektore guztietan energia berriztagarrien erabilpenaren bidez.*
 - a. *Eskualdeko eraikin publikoetan energia berriztagarrien ekoizpena sustatu.*
 - b. *Eskuadeko industria sektorean energia berriztagarrien ekoizpena sustatu.*
3. *Eskualdeko agente desberdinak eta herritarrak trantsizioaren partaide bilakatzea sustatu.*
4. *Garapen jasangarrirako helburuak ezagutzera eman.*
5. *Ekintza-planaren jarraipena eta koordinazioa.*

Ekintza guztiak 2020 urtean zehar gauzatu dira eta hauek Goierriko eskualdea osatzen duten 18 udalerrietara iritsi dira intzidentzia maila ezberdinakin (Arama, Alzaga, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain).

Ekintza planaren baitan eskualdeko udalak parte hartzeaz gain, eskualdeko eragile ezberdinak ere parte hartu izan dute esate baterako, Goierri valley elkarte, Goitur, Goiener, etab.

3. GAUZATUTAKO EKINTZAK

3.1. Goierriko udalen adaptazioa jasangarritasun energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legera.

Otsailaren 21eko 4/2019 legearen xedea da, politika energetikoaren oinarri arautzaileak ezartzea euskal administrazio publikoen eta sektore pribatuaren esparruetan. Batzuek eta besteek bete behar dituzten oinarritzko eginbeharrak eta betebeharrak artikulatuz, batez ere, energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko neurriak bultzatzera eta energia berriztagarriak sustatu eta ezartzera bideratuta daudenak. Legean ezarritako betekizunak, erronkak, aukerak, mehatzuak eta zailtasunak adierazten dira.

Legearen oinarriak ezagutzera emateko aurrikusita zegoen formakuntza jardunaldi orokor bat antolatzea eskualdeko udal guztientzako, baina pandemiaren egoera dela eta azkenean online formakuntza bi saio antolatu ziren Skype plataformaren bitartez (Ordizia eta Beasain) eta hiru saio presentzialak (Ataun, Olaberria eta Segura). Lehenengo biak ekainan zehar gauzatu ziren, eta azken hirurak uztailan.

Formakuntza saio hauetan legearen betekizunak, erronkak, aukerak, mehatxuak, zailtasunak, eta kasu eta esperientzia errealek aztertu dira (saioak bi ordutako iraupena izan dute). Hurrengo taulan adierazten da saio bakoitzaren zehaztasun guztiak.

Udala	Eguna	Iraupena	Modalidadea
Ataun	7.07.2020	2	Presentziala
Olaberria	15.07.2020	2	Presentziala
Segura	17.07.2020	2	Presentziala
Ordizia	2.06.2020	2	Online
Beasain	15.06.2020	2	Online

CURSO DE FORMACIÓN Y CAPACITACIÓN



Ley de sostenibilidad energética de la comunidad autónoma vasca.

Ley 4/2019, de 21 de febrero.



2. Irudia. Formakuntza saioetan erabilitako aurkezpenaren portada.

Gauzatutako saioetan erabilitako aurkezpena hirugarren eraskinean ikus daiteke (ikusi 2020ko azaroaren 26an Gipuzkoako Foru aldundiko erregistro elektronikoaren bidez erregistratutako III. Eranskina).

Udalen adaptazio prozesuan zehar alkate, zinegotzi eta teknikarien formakuntzaz gain, udalen kudeaketa energetikoaren egoeraren diagnostikoa gauzatu da, auditori baten bitartez. Auditoria otsailaren 21eko 4/2019 legean oinarritu da.

Diagnostikoa Olaberriako udalak parte hartu izan du. Auditoria gauzatzeko 2 lan saio presentzial gauzatu ziren, lehenengoa irailaren 30ean eta bigarrena urriaren 14ean. Lehenengoan

auditoriaren aurkezpena eta cheklist-aren errebisioa gauzatu zen, datuen bilketa aktibatzeke (iraupena: 4 ordu, 15:00-19:00). Eta bigarren lan saioan dokumentu eta datu guztiak edukita auditoria gauzatu zen (iraupena: 4 ordu, 15:00-19:00). Auditoriaren emaitza nagusienak laugarren eranskinean ikus daitezke (ikusi 2020ko azaroaren 26an Gipuzkoako Foru aldundiko erregistro elektronikoaren bidez erregistratutako IV. Eranskina).

Empresa auditora: BIRZITEK ENGINEERING S.L.			
Tipo auditoría:			
Auditoría interna ☒	Seguimiento ☐	Recertificación ☐	Especial ☐
Fecha auditoría:	14.10.2020	Fecha informe:	27.10.2020
Duración auditoría:	1 (días in situ)	Nº de informe:	2020/25
DATOS DE LA ORGANIZACIÓN			
Nombre: Ayuntamiento de Olaberria			
Dirección: San Joan Enparantza, 1 S N 20212 Olaberria, Gipuzkoa		Representante: Jokin Garmendia	
		Cargo: Alcalde	
		Email: alkatea@olaberria.eus	
		Teléfono: 943 88 14 34	
EQUIPO AUDITOR			
Auditor jefe:		Olaya Mendoza (BIRZITEK ENGINEERING S.L.)	
Miembros del equipo auditor:			
Observadores / técnicos:			
CRITERIO DE AUDITORÍA			
Normas:			
9001:2015 ☐	14001:2015 ☐	50001:2018 ☐	Otro ☒ Norma: Ley 4/2019
Auditoría integrada:		Si ☐ No ☒	
DETALLES DE LA AUDITORÍA			
Alcance		Ley 4/2019, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética de la comunidad autónoma vasca.	
NO CONFORMIDADES			
Nº total (detectadas durante la auditoría):		0	
OBSERVACIONES			
Nº total (detectadas durante la auditoría):		11	

3. Irudia. Olaberriako udalaren auditoriaren portada.

Adaptazio prozesu hau gauzatzeko Birzitek Engineering S.L. enpresaren laguntzarekin kontatu da.

3.2. Energia berriztagarriaren sorkuntza bultzatu.

3.2.1. Energia eolikoaren sorkuntzaren inguruko azterketa Gipuzkoan.

Hitzarmenean aipatu zen moduan, energia berriztagarriaren sorkuntza bultzatzeko lehenengo ekintza energia eolikoaren sorkuntzaren inguruko azterketa tekniko-ekonomiko gauzatzea izan da.

Azterketa ekaina eta abendua bitartean gauzatu zen, eta azterketaren ondorio garrantzitsuenak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen saileko teknikariek (Bea Martikorenaekin eta Iñaki Pugarekin) partekatu ziren 2020ko abenduaren 1ean gauzatutako bilera remotoan.



4. Irudia. Energia eolikoaren azterketaren portada.

Azterketa hau Goierri valley elkarteak burutu du, eta aditua den teknikari bat arduratu da azterketa gauzatzea.

3.2.2. Energia fotoboltaikoaren sorkuntza Goierriko eskualdean.


Martxoaren 17an ospatu zen 2020ko lehenengo energia mahaia, eta bertan aurkeztu zen 2019. Urtean zehar Beasainen garatutako eguzki-energia elektrikoa sortzeko proiektu pilotoa. Proiektu honen harira dinamika berezia garatu zen energia mahaiko partaideen artean, identifikatzeko eskualde mailan eraikin publiko interesgarrienak autokontsumo fotoboltaikoa inplantatzeko.

Proposamenak lehenetsi eta gero, Ordiziko udalaren plaza nagusiko merkatuaren potentziala aztertzea erabaki zen. Ondorioz, azaroan erabaki zen Krea Energia S.L. enpresa azpikontratatzeko, plaza nagusiko merkatuaren gainean plaka fotoboltaikoak instalatzeko bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertzeko.

Instalakuntza fotoboltaikoari dagokionez, plaza nagusiko teilatuan kokatzea planteatu da. Teilatuaren petrilarren itzalengatik, azalera pixkat txikitu beharko zen eta 20ºtakomakurdura lortzeko hormigoizko blokeak kokatu beharko ziren. Proposatutako plaka fotoboltaiko kopurua 210ekoa izango zen, 94,5kweko potentziarekin.

Gero sareko inbertsorea erantsi beharko zitzaion eta energia kontagailua kontsumoak eta sorkuntza kontrolpean edukitzeko.

Jarraian hurrengo eraikinen behar energetikoen analisia gauzatu da: udaletxea, udaltzaingo-bake epaitegia, jubilatuen etxea, pertsonen ongizatea, dorre etxea, barrena kultur etxea, Delikatuz, frontoia eta herri antzokia. Behar energetikoa ezagututa kostu energetikoen analisia aztertu da; eta amaieran sorkuntza fotoboltaikoaren analisia eta sortutako aurrezkiaren kalkuluak burutu dira.



5. Irudia. Autokontsumo fotoboltaikoa Ordiziako merkatuaren gainean.



6. Irudia. Plazatik gertu gelditzen diren eraikin publikoen identifikazioa.

3.3. Etorkizuneko mugikortasun jasangarria eta elektrikoa.


3.3.1. Auto eta bizikleta elektrikoak kargatzeko puntuen azterketa.

Otsailean adierazi zen moduan, gauzatutako azterketaren lehenengo fasean eskualdeko udaletan ibilgailu elektrikoak (bizikleta eta patinete elektrikoak barne) kargatzeko oinarritzko azpiegiturak identifikatu dira (koadro elektrikoak, ezarritako potentziak, kanalizazioak, etab.).

Bigarren fasean karga sistemak eta kokapenak proposatu dira. Karga sistemen artean hurrengoak proposatu dira: sistema lotua, konbentzionala, erdi azkarra, azkarra eta ultra azkarra. Erabilera publikoko karga kokapenei dagokionez, hurrengo irudietan ikus daitezke bi udalentsako egindako proposamen zehatzak.



7. Irudia. Araman instalatu daiteken karga puntu publikoa.



8. Irudia. Beasain instalatu daitezken karga puntu publikoak.

Azterketa hau gauzatzeko Aizkorpe enpresaren laguntzarekin kontatu da.

3.3.2. Mugikortasun turistikoaren ereduak eta proiektu pilotuak.

Hitzarmenean zehaztu zen moduan proiektuaren abiapuntua izan da Europako beste eskualde ertainen artean mugikortasun eredu adierazgarriena identifikatzea eta Goierriko eskualdean inplementatzeko neurriak zehaztea. Azterketa hau gauzatzeko Aizkorpe enpresaren eta Goitur elkartearen laguntzarekin kontatu da.

Egindako azterketaren hiru ondorio nagusienak hurrengoak izan dira: kotxe elektrikoarekin datozen turistentzako elektro rutak definitzea, informazio puntuak kokatzea erreforma tartea aprobetxatzeko, eta azkenik kargadoreak erabiltzea turistak erakartzeko input bezala.

3.4. Ekintza planaren jarraipena eta koordinazioa

Goierriko eskualdeko ekintza plana dinamizatzeko eta jarraitzeko, eta eskualdeko eragile ezberdin guztien artean ekintzak koordinatzeko 2017. Urtean sortutako goierriko energia mahaia dinamizatzen jarraitzea erabaki da.

Eskualdeko mahai orokorra da. 2017. urtean sortu zen eskualdeko energia plana osatzeko, ekintza planari jarraipena emateko eta koordinazio interinstituzionala (Ihobe, EVE, Eusko jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, etab.) errazteko. Mahai hontan parte hartzen duten eragileak hurrengoak dira: eskualdeko 19 udalak, Goieki, Goitur eta Goierri valley. Birzitekek antolatzaile eta dinamizatzaile lana burutzen du.



9. Irudia. Eskualdeko energia mahaian parte hartzen duten eragileak.

2020.urtean zehar hiru mahai energetiko antolatu dira. Lehenengoa martxoaren 17an, bigarrena ekainaren 18an eta hirugarrena azaroaren 24ean. Guztira 26 pertsona bertaratu dira (8 emakume eta 18 gizon).

Bigarren energia mahaiaren inguruko artikulu berezia argitaratu zen Goiekiko webgunean (<https://www.goierri.eus/noticias/ingurumena/1384-2020ko-ekintza-planaren-aurkezpena> - <https://www.goierri.eus/noticias/ingurumena/1384-2020ko-ekintza-planaren-aurkezpena>).



10. Irudia. Ekaineko energia mahai.



11. Irudia. Azaroan burututako energia mahaia.



12. Irudia Azaroan burututako energia mahaia.

Koordinazio interinstituzionalari dagokionez, Gipuzkoako foru aldundiako ingurumeneko departamenduak antolatutako Gipuzkoako energia jasangarriaren lurralde mahaia ren 9. Bileran (2020.01.24) parte-hartu izan dugu.

GIZARTE ARLOA

AURKIBIDEA

1.	LANDUTAKO PROIEKTUAK	75
1.1.	Goierriko Agente eta Gizarte Zerbitzuen Ataria	75
1.2.	Goierriko Enpleguaren Egoeraren Behatokia	75
1.3.	Gizarte-gaiei buruzko eskualdeko buletina	76
1.4.	Genero-indarkeriaren aurkako jarduera-protokoloa	77
1.5.	Kolektibo zaugarriak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak	78
1.6.	GOIOSASUNLAB	79

1. LANDUTAKO PROIEKTUAK

Goiekiko gizarte arloaren helburu nagusia Goierriko gizarte arloaren inguruan sor daitezkeen eta udal mailan bete ezin daitezkeen kezka eta beharrei erantzutea da, eta, hala badagokio, eskualdeko eragileekin batera erantzun koordinatua eman ahal izatea.

Beste hainbat arlotan bezala, 2020ko ekitaldian, Goierriko gizarte-arloan egindako jardueretan eragina izan du Covid-19 Pandemiaren ondorioz ezarritako osasun-murrizketek. Ildo horretan, barne-kudeaketako jarduerak edo parte-hartzaileen kopuru txikia zuten jarduerak mantendu ahal izan dira, hala nola genero-indarkeriaren aurkako koordinazio-mahaiaren bilerak. Hala ere, ez da egokitzat edo zuhurtzat jo pertsona gehiagorekin saioak egitea, esate baterako, foro sozialaren urteko bilera, foroa osatzen duten eragile guztiak bertan direla. Espero dugu 2021. urte honetan gizarte-arloko jarduera osoa pixkanaka berreskuratzea.

Jarraian, 2020an gizarte-arloan garatu diren lan-eremuetako zenbait alderdi deskribatzen dira::

1.1. Goierriko Agente eta Gizarte Zerbitzuen Ataria

Goiekiko gizarte-eragile eta -zerbitzuen atariari dagokionez, non eskualdeko eragile eta zerbitzuei buruzko informazioa partekatzen den (www.goierri.eus/es/portal-de-agentes-y-servicios-sociales), adierazi behar da agenteek ematen duten informazioa etengabe eguneratzen dela (harremanetarako pertsona, posta elektronikoa, telefonoa, etab.).


Esan dezakegu, industria-sektorea eskulan kualifikatua eskatzen ari den arren, Goierriko langabetuen kolektibo bat dugula, nekez sartuko dena lan-merkatura, eta hor indartu behar ditugula gure ahaleginak datozen urteetan.

Ildo horretan, bi proiektu planteatu dira kolektibo horren barruan dauden pertsonen benetako enplegu-aukerak bilatzeko helburuarekin.


1.2. Goierriko Enpleguaren Egoeraren Behatokia

Goiekiko gizarte-arloak etengabeko jarraipena egiten die eskualdeko eta Goierriko udalerri bakoitzeko langabeziari eta kontratazioari buruzko datuei. Jarraipen horren ondorioz, bi hilean behin txosten bat argitaratzen da, eta, bertan, eskualdearen egoera Gipuzkoa osoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatzen da. Txosten honetan generoaren, adinaren, sektore ekonomikoaren eta ikasketa-mailaren arabera banakatutako adierazleak jasotzen dira. Azterketa horiek Goieki-ren webgunean kontsulta daitezke.

2021eko urtarrileko azken txostenean, 2021eko abenduko datuei dagokienez, Goierriko langabezia-tasa% 8,4koa dela egiaztatu da, Gipuzkoako% 9,8aren eta Euskal Autonomia Erkidegoko% 12,1aren oso azpitik.



Nabarmentzekoa da 2020ko martxoan, Covid -19 pandemiaren ondorioak baino lehen, eskualdeko langabezia-tasa% 8,0koa zela, eta gaur egun adierazi den bezala, berriz,% 8,4koa. Beraz, pandemiaren hilabete gogorrenetan galdutako enplegua ia berreskuratu dela esan daiteke.




1.3. Gizarte-gaiei buruzko eskualdeko buletina

2020. urtean zehar, hasiera batean, hiru informazio-buletin bidaltzea aurreikusi zen, gizarte-arloaren eta eragileen jarduerari buruzkoak, bai eta hurrengo hilabeteetarako aurreikusitako jardueraren egutegiari buruzkoak ere; baina, lehen esan dugun bezala, pandemiaren ondorioz egindako jarduerak bertan behera utzi edo ahalik eta gehien mugatu dira, eta, beraz, ez zegoen nahikoa elementu butelin horiek edukiz hornitzeko. Hala ere, 2021. urteko lehen hiruhilekoan Gizarte Arloko Buletina idazteko eta argitaratzeko erritmoa berreskuratzea espero da.

1.4. Genero-indarkeriaren aurkako jarduera-protokoloa


Buletinaren kasuan ez bezala, genero-indarkeriaren aurkako eskualdeko koordinazio-mahaiaren bi bilerak egin ahal izan dira, zehazki, urtarrilean eta uztailan. Saioetan txosten bat aurkeztu da, aurreko aldian erakundeek eskualdean artatu dituzten genero-indarkeriako kasuen kopuruari buruz. Goieki-ren webgunean ere eskuragarri dago txosten hori, emaitza guztiak adinaren, udalerriaren, indarkeria motaren eta abarren arabera banakatuta.

Uztaileko saioan, 2020ko lehen seihilekoan artatutako genero-kasuen emaitzak aurkeztu ziren, eta aurreko bi urteekiko gorakada nabarmena ikusi zen.



Bileran adierazi zenez, kasuen gehikuntza hori aurreko urteetan komunikazio-arazo puntual bati egotz dakizkiokeen arrazoien ondorioz udalerri gutxiagori buruzko datuak bildu direlako izan daiteke, eta arazo hori dagoeneko konpondu da. Ez dakigu konfinamendu-aldiek zenbaterainoko eragina izan duten kasuen igoeran.

Identifikatutako kasu horietatik, emakumeen% 67k jarri du salaketa, 2019an eta 2018an erregistratutako salaketen ehunekoak baino handiagoa.



1.5. Kolektibo zaugarriak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak

2020ko ekitaldian, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboetako pertsonen enplegua sustatzeko proiektuak garatzen jarraitu da, eskualdeko enpresa eta elkarte-sarearekin lankidetzan.

Landu den lehen proiektua honako hau izan da: "Jarduera anitzeko zerbitzuetan gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gaikuntza eta gizarteratzea eta laneratzea". Proiektu horrek, alde batetik, prestakuntza-ibilbide bat eskaintzen zuen, 1. mailako igeltserotzako profesionaltasun-ziurtagiri bat eta elektrizitateko, lorezaintzako eta iturgintzako prestakuntza-moduluak jasotzen zituen, eta, bestetik, lan-orientazioko prozesu bat, 6 hilabeteko lan-kontratazioko aldi batekin amaitzeko. Ekimen hori 2020ko urtarrilean argitaratu zen, landunak eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten langabeak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu bereziak garatzeko Lanbideren deialdian aurkeztu zen.

ACTIVIDAD	CONTENIDO
1º Formación	•Curso de Jardinería
2º Formación	•Curso de Albañilería: edificación y obra civil
3º Formación	•Curso de Electricidad
4º Formación	•Curso de Fontanería
5º Acciones de Orientación para el empleo y acompañamiento	•Acción grupal, dividida y organizada en sesiones diferentes en función de los temas a tratar (EJ: Crear y documentar el CV, gestión del empleo, fuentes de información relevantes, etc)
6º Prospección de oportunidades de empleo	•Análisis del mercado laboral e impulso contratación
7º Contratación laboral	• 6 meses de contratación

Hasiera batean, Lanbidek proiektua onartu zuen, baina hainbat zailtasun sortu ziren, Covid-19ren pandemiaren ondorioz exekuzio-epeak atzeratu zirelako, eta, ondorioz, azkenean uko egin behar izan zitzaion exekuzioari. Hala ere, proiektua diseinatzeko egindako lana ez da galdu; izan ere, proiektua osorik mantentzen da, hautematen diren etorkizuneko laguntzetan aurkezteko asmoarekin.

2020an, proiektu hau ere landu da: "Goierriin ehungintzan gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa sortzea". Proiektu hori 2019an hasi zen, 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko ikastaro bat antolatu zenean, "Ehunezko eta larruzko jantzien eta artikuluen moldaketak eta egokitzapenak" izenekoa. 15 emakumek eman zuten izena ziurtagiri horretan, beren lan-egoera hobetzeko. Horietatik 11k ikastaroa arrakastaz gaingitu zuten eta, ondoren, praktikak egin zituzten sektoreko enpresetan.

Aurtengo proiektuaren helburu nagusia pertsona-talde horrekin hasitako laguntza-prozesua ixtea zen, eta bideragarritasun-azterketa bat egin ondoren, Goierriin ehungintzan txertatze-

jarduera ekonomiko berri bat sortzea, Sarea Fundazioaren laguntzarekin. Ekimena Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu eta finantzatu zuen "enplegua sustatzeko eta gizarteratzeko eta laneratzeko" Elkar-EKIN Lanean" programaren barruan. Finantzaketa horri esker, tailerreko lokala birgaitzeko, josteko makina berriak erosteko eta lanpostuan prestakuntza eta enplegu-prozesu bat egiteko aukera izan da. Bertan, 2019ko ikasturtea amaitu zuten 4 emakumek parte hartu dute, eta, gainera, zeharkako gaitasunak landu dira, hala nola lidergoa, talde-lana, komunikazioa, etab.




Gaur egun, lan handia egin ondoren, Zaldibian kokatuta dagoen "Ehunkide" Tailerra errealitate bihurtu da. Tailerrean hainbat produktu ekoizten hasi dira, hala nola poltsak, homologatutako maskarak, etab

Azpimarratu behar da proiektu hau lankidetzako proiektu bat dela, eta Goieki arduratu dela proiektuaren kudeaketaz, Sarea Fundazioa arduratu dela lanpostuko prestakuntzaz eta Caritas arduratu dela erabiltzaileekiko harremanak koordinatzeaz eta mantentzeaz. Dena Prospektiker eta Enplea Fundazioaren laguntza teknikoarekin, azken hau zeharkako gaitasunei buruzko prestakuntzaren esparruan.

1.6. GOIOSASUNLAB

Ubikare, Acede, H-Enea eta Goiekiren artean gauzatutako lankidetzako proiektua, Goierri eskualdeko GFaren finantzaketarekin, udalerri handietan, ertainetan zein txikietan zahartze aktiboa sustatzeko. NAIHARI esker beharrezko diagnostikoa egin ondoren, aurrez aurreko eta taldeko prebentzio esku-hartze pertsonalizatuak abiarazi nahi ziren udalerrietan. Covid-19aren ondorioz, presentzialtasuna digitalera pasatu behar izan zen, eta taldekakotik banakakora. Proiektu horri esker, adineko

hauskorren kolektiboan oztopo teknologikoak ikasi eta ulertu ahal izan dira, eta arrakasta-gakoak atera dira kolektibo horretan ekimen digital eta jasangarri baterako. Bertan 55 pertsonak parte hartu dute eta Beasaingo eta Ataungo 30 bat lagunek proiektua osorik egitea lortu dute, asebetetze-maila oso altuarekin.



BESTE PROIEKTUAK

AURKIBIDEA

1.	KIUB.....	83
1.1.	SARRERA	83
1.2.	ATENDITUTAKO PERTSONEN KOPURUA.....	83
1.3.	KONTSULTAK	85
1.4.	ERREKLAMAZIOAK.....	86
1.5.	HERRIZ HERRI.....	87
1.6.	KONTAKTATZEKO BIDEAK	88
2.	EROSKETA ZENTRALA.....	88
3.	MUGI TXARTELAK (GARRAIO PUBLIKOA)	88
4.	IBILGAILU ELEKTRIKOEN KARGAGAILUAK	89

1. KIUB

1.1. SARRERA

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak 2020. urteari dagokion memoria aurkeztu du. Bertan, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsan egindako jarduerak jasotzen dira, bai kontsultak ebatztean, bai erreklamazioak izapidetzean.

Urte zaila izan da kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat, eta zerbitzua nolabait baldintzatu du. Pandemia-deklarazioaren lehen asteetan, aurrez aurreko arreta itxita zegoenez, asistentzia-kopurua murriztu egin zen, baina berehala berreskuratu ziren datuak, telefonoa eta posta elektronikoa asko erabili baitziren zerbitzu horrekin harremanetan jartzeko.

1.2. ATENDITUTAKO PERTSONEN KOPURUA

2020an, eskualde osoan, 675 pertsonari eman zaie arreta. Horietatik 338 Beasainera joan dira, 233 Ordiziara eta 104 Lazkaora.

Esan daiteke zenbaketa orokorretan aurreko urteekin alderatuta antzeko zifrak daudela, baina xehetasunetara joz, apirilean eta maiatzean artatutakoen kopuruak behera egin duela egiazta daiteke.

	BEASAIN	ORDIZIA	LAZKAO	GUZTIRA
URTARRILA	34	21	10	65
OTSAILA	23	23	19	65
MARTXOA	30	21	5	56
APIRILA	15	16	6	37
MAIATZA	13	18	11	42
EKAINA	41	31	13	85
UZTAILA	37	25	10	72
ABUZTUA				
IRAILA	45	25	6	76
URRIA	30	14	8	52
AZAROA	44	23	6	73
ABENDUA	26	16	10	52
GUZTIRA	338	233	104	675

1.3. KONTSULTAK

465 kontsumitzaile jarri dira harremanetan KIUB honekin kontsultak egiteko: 238 Beasaingo bulegoan, 170 Ordiziakoan eta 57 Lazkaokoan.

	BEASAIN	ORDIZIA	LAZKAO	GUZTIRA
URTARRILA	28	12	5	45
OTSAILA	14	15	9	38
MARTXOA	21	15	3	39
APIRILA	12	10	4	26
MAIATZA	9	16	7	32
EKAINA	33	24	9	66
UZTAILA	24	22	6	52
ABUZTUA				
IRAILA	31	17	2	50
URRIA	18	9	3	30
AZAROA	33	19	2	54
ABENDUA	15	11	7	33
GUZTIRA	238	170	57	465

1.4. ERREKLAMAZIOAK

2020an, guztira 210 erreklamazio izapidetu dira, 100 Beasaingo bulegoan, 63 Ordiziakoan eta 47 Lazkaon.

Aurreko urteetan bezala, datu altuenak dituzten telekomunikazioen sektorearekin jarraitzen dugu, izapidetutako erreklamazio guztien % 46,52rekin. Bigarren postuan sektore turistikoa dago (Bidaia Agentziak, Hotelak, Aireko Garraioa...), eta hirugarren lekuan dago sektore energetikoa. Turismoaren sektoreak erreklamazioen % 13,45 ditu, eta energiaren sektoreak % 7,15.

Gainerakoak honako hauetan banatzen dira: produktu elektronikoak, % 3,82; Ibilgailuak konpontzeko tailerrak, % 1,90; ehun-merkataritza, % 1,12, besteak beste.

	BEASAIN	ORDIZIA	LAZKAO	GUZTIRA
URTARRILA	6	9	5	20
OTSAILA	9	8	10	27
MARTXOA	9	6	2	17
APIRILA	3	6	2	11
MAIATZA	4	2	4	10
EKAINA	8	7	4	19
UZTAILA	13	3	4	20
ABUZTUA				
IRAILA	14	8	4	26
URRIA	12	5	5	22
AZAROA	11	4	4	19
ABENDUA	11	5	3	19
GUZTIRA	100	63	47	210

1.5. HERRIZ HERRI

	KONTSULTAK	ERREKLAMAZIOAK	GUZTIRA
ALTZAGA	1	2	3
ARAMA		1	1
ATAUN	3	5	8
BEASAIN	218	78	296
GABIRIA		3	3
GAINTZA	1	1	2
IDIAZABAL	1	6	7
ITSASONDO	1	2	3
LAZKAO	56	38	94
LEGORRETA	2	1	3
OLABERRIA	2	2	4
ORDIZIA	167	43	210
ORMAIZTEGI	4	7	11
SEGURA		4	4
ZALDIBIA	2	6	8
ZEGAMA		1	1
ZERAIN	1		1
OTROS	6	10	16

1.6. KONTAKTATZEKO BIDEAK

PERTSONALKI	247 KONTSULTA
	148 ERREKLAMAZIO
TELEFONOZ	195 KONTSULTA
	3 ERREKLAMAZIO
POSTA ELEKTRONIKOZ	23 KONTSULTA
	59 ERREKLAMAZIO

2. EROSKETA ZENTRALA

Aurreko ekitaldian bezala Goiekiko Erosketa Zentralaren barruan euskal produktuen katalogoak eskuratzea kudeaketa egin da. Aurten zerbitzu honetan Ordizia, Olaberria, Itsasondo, Zaldibia, Alzaga eta Aramako udaletxeek hartu dute parte.

3. MUGI TXARTELAK (GARRAIO PUBLIKOA)

2020 urtean zehar Goiekin 231 Mugi txartel tramitatu dira, horietatik 229 txartel pertsonalizatuen eskaerak izan dira eta 2 txartel anonimoak.


4. IBILGAILU ELEKTRIKOEN KARGAGAILUAK

2019 urtean zehar, Goierriko Berrikuntza Gunean ibilgailu elketrikoen kargagailuak instalatzeko azterketa egin zen eta 2020an, martxoan zehatzago esateko, kargagailu horien instalazioa burutu da.



2020 urtean zehar hainbat izan dira Berrikuntza Guneako kargagailuetan egin diren errenergak eta jarraian hori erakusten duen grafika batzuk azaltzen dira:


Consumo acumulado de los puntos de recarga seleccionados



Goiko grafikan ikusten den bezala, puntuak instalatu eta denbora pasatuz joan ahala, errecharge kopuruak gora egin du. Abenduaren 31rarte 41 izan dira buruturiko errechargeak.

Amaitzeko kargaren kontsumoa adierazten duen grafika azaltzen da:

Consumo de los puntos de recarga seleccionados



Urte amaiera aldera izan dira errecharge bolumen gehien izan duten egunak. Lehen aipatu den bezala, denbora pasa ahala egin dira ezagunak puntu hauek eta horri geroz eta auto elektriko gehiago daudela gehitu behar zaio. Goranzko joera honek jarraitzea aurreikusten da.